

Noaua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko azaroaren 10a V.urtea

Usurbil, 100. zenbakia

1996ko ekainak 28

Usurbil, 1. Zenbakia

Noaua!!

H A M A B O S T E K A R I A

librean
Espainiako
txapelketa

Noaua!!

H A M A B O S T E K A R I A

2009ko martxoaren 10a V.urtea

Usurbil, 85. zenbakia

Noaua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko uztailaren 28a V.urtea

Usurbil, 95. zenbakia

Noaua

H A M A B O S K A R I A

2000ko urtarraren 13a V.urtea

Usurbil

Noaua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko martxoaren 5a V.urtea

Usurbil

Noaua!!

H A M A B O S T E K A R I A

2000ko martxoaren 20a V.urtea

100. alera iritsi gara

Hiru eguneko
amets garia

EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIKO

Sanixabelak 19

Kkittu soldaduska

Azaroak 18, Usurbil

jai'ON

Lortu dugu!

18:00

Kale animazioa,
Gaitzerdi,
Elektrotuna,
Lezot Kaus Band,...

Karpa Erraldoia

Prezioak:
1.200 / 1.500

21:00

Dr. Deseo

Betagarri

Corazón
del
Sapo

Stager

La Pila

Desobedientziaz

Desmilitarizazioa
Askatasuna

Lor dezakegu

SALMENTA TOKIAK:

BIZKAIA: BILBO (Likiniano, Txomin Barullo); BARAKALDO (Mellid Taberna); BASAURI (Sutarri); SESTAO (Ekintza Taberna).
GASTEIZ (Parral Taberna, Sorgina). **IRUNA** (Mesón de Navarrería).
GIPUZKOA: DONOSTIA (Bilintx); ERRENTERIA (Xenpelar);
ORDIZIA (Baga-Biga); USURBIL (Txiriboga).



Egunkaria

ARGIA

gara

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Ainitze**. Azaroaren 7an 9 urte bete zenituenex muxu haundi bat Nagore, Garazi eta gurasoen partez.



Zorionak **Andoni**! Azaroaren 16an zure bigarren urtebetetza duzu. Muxu haundi bat etxekoan partez.



Zorionak eta urte askoan **Sara Montes Guerra**. Azaroaren 17an 11 urte betetzen dituzunez ondo-ondo pasa eta muxu haundi bat zure ama, anaia Sergio eta Juaniren etxekoan partez.



Zorionak **Maddi**! Azaroaren 5ean bi urte bete zituen gure etxeko neska politak. Muxu asko zure famili guztia-
ren partetik.



Zorionak **Nikolas eta Alazne**, azaroaren 23 eta 11ean zuen urtebetetze eguna izango baita. Musu haundi bat etxekoan partez.



Maider Sanchez Learte. Azaroaren 17an bi urte betetzen dituzunez zorionak eta muxu haundi bat Vanessa, Angelines eta Angelesen partez.



Zorionak **aita Jose Mari eta ama Maria Jesus** azaroaren 11n. San Martin egunean, ezkondu zinetela 46 urte betetzen direlako. Urte askotarako eta muxu haundi bat etxekoan partez. Ea bazkari eder batekin ospatzen dugun!

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarre hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: azaroaren 24an
Ekartzeko azken eguna: azaroaren 17a

Jaiotzak

Oren Faz
Aierbe
2000-11-7
Atxegalde

Udaltzaingoaren ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

* Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu
deitu telefono honetara

943-361112

Bai, esan?

• Udala	37 19 51
• Udaltzaingoa	36 11 12
• Anbulategia	36 20 13
• Udarregi ikastola	36 12 16
• Agerialde ikastetxea	36 38 95
• Oiarde kiroldegia	37 24 98
• Zumarte	37 15 94
• Etumeta	37 20 01
• Taxi geltokia	36 21 78
• D.Y.A.	46 46 22
• Gurutze Gorria	27 22 22
• Gure Pakea	37 32 28
• Gure Elkartea	37 17 51
• Arrate egoitza	36 63 40
• Eusko Tren	47 09 76
• Noaia! aldizkaria	36 03 21

Akatsak zuzenduz

99.aleko 20. orrialdean "Ormaetxea jaunari eskutitz irekia" izenburua zuen testua egilerik gabe agertu zen. Ez, anonimoa zelako, baizik eta maketazio akats baten ondorioz testuaren egilearen izena jan genuelako baizik. Izan ere, Edorta Agirre da eskutitz horren egilea.

TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA

Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa

Etchebeste, 3

Tel. 37 16 85

Kalkos kopisteria

- Fotokopiak
- Fotokopiak koloretan
- Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- Planoen kopiak (AO arte)
- Ordenadoreko lanak
- Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



**Argitaratzailea**

Noaia! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaia.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaia/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalaa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Elzendi, Jokin Zubizar, Maria Jesus Urbiet, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitx Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zalaa Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez.

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketak

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaia! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

Noaia! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:
Noaia! aldizkariak

BAI EUSKAL HERRIARI SINADURA BILKETA KANPAINARI BURUZ HAINBAT ARGIPEN

Bai Euskal Herriari nazio mailako herri ekimena da, sektore ezberdinetako jendeaz osatua, eta hainbat ekimen bideratu dituen, horien artean Miarrizten Europako estatuburuak urrian egin zuten bileran Euskal Herria nazio gisa azaltzeko manifestazio deialdiak luzatu zituen, eta baita Udalbiltzari Euskal Nortasun Agiria tramitatzen hasteko exijituaz sinadura bilketak egiten ari dena. Helburu horrekin Usurbilgo Ezker Abertzaleak bat egin du guztiz eta herrian sinadura bilketa ezker abertzaleak bultzatu du. Aipatu behar dugu Euskal Herriko ehundaka zinegotzi eta alkatek sortutako Udalbiltza nazio instituzioak onartu zuela euskal errolda egitea eta euskal nortasun agiri ofiziala tramitatzen hastea, baina erabaki hori izoztua mantentzen duela. Eta sinadura bilketa erabaki hori mar txan jartzeko presio bide bezala egin dela, sinadura emateak ez du esan nahi Euskal Nortasun Agiria etxera bidaliko digutenik. Udalbiltza erakundeari hori egiteko bitartekoak jartzeko eskaera egiten da sinadura bilketa horrekin. Herriarron presioaren bitartez Udalbiltzak Euskal Nortasun Agiria tramitatzen hasi beharko du, eta orduan izango dugu aukera agiri ofizial baten jabe izateko, orduan eskatu beharko dugu euskal

agiria eta ondoren bidaliko digute etxera.

Bestalde eskarrik beroena azaldu behar diegu beren etxeko atea zabaltu diguten usurbildarrei, horrelako jarrerekin gure herriaren askatasuna gero eta hurbilago baitugu.

Azkenik El País espainiar egunkariak urriaren 25ean publiko egin zituen irainak eta afirmazioak gezurtatu nahi ditugu, etxetako atea jotzea eta sinadura bilketaren berri ematea modu ñ intimatorioa eta ñ en la linea del m.s puro estilo nazi egin omen dugu. Horrelako intoxikazioen bitartez abertzaleon proiektu politikoa (independentzia) kriminalizatu nahi dute, desobediencia zibila kriminalizatu nahi dute, azken finean abertzale guztiak gartzelan sartzea nahi dute. Ideia guztiak maila berdinean defenda zitezkeela esten zuten, beren ideologiaren oinarri den espainiar estatua errealitate bat da, euskal errepublikaren alde egitea, inoiz lortuko dugula amets egitea berriz delitua. Argi gelditzen dena zera da; beraien zuzenbide estatuak defizit demokratiko larriak dituela, ideiak kondenatzen dituztela, komunikabideak ixten dituztela... eta horren aurrean abertzaleok geure proiektu politikoaren inguruan bildu egin behar gara.

Niko Bengoetxea



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal Herrira!



Joakina Alkorta Zabala

Usurbildarra bada ere, hogeita zazpi urte daramatza Adunan bizitzen. Hala ere **Noaua!** Kultur Elkarteko bazkidea da eta gustora hartzen du aldizkaria. Guk **Noaua!**-ri buruz hitz egin dugu berarekin.

Duela asko utzi al zenuen herria? Zuzenean Adunara etorri al zinen bizitzera?

Bai, hogeita zazpi urte dira Usurbildik joan nintzela. Ezkondu eta hona, Adunara, etorri nintzen senarrarekin. Ordutik hemen bizi gara, Lardi- Txiki baserrian.

Aldaketa haundia suposatu al zuen zuretzat beste herri batera joateak?

Ez gehiegi. Han baserrian bizi nintzen eta Adunan ere, baserriko bizitzarekin jarraitu nuen. Jendea ez nuen ezagutzen eta alde horretatik aldaketa txiki bat suposatu zuen, baina bestela, lehenagoko bizitza berdinarekin jarraitu nuenez bizimodua ez zitzaidan gehiegi aldatu.

Nola izan zenuen **Noaua!**-ren berri? Nola egin zinen bazkide?

Alabak Usurbilgo udaletxean egiten zuen lana, eta han ere familia badut. Beraien bitartez jakin nuen Usurbilen aldizkaria zegoela. **Noaua!**-ren egoitzara deitu nuen, datuak eman eta horrela egin nintzen bazkide.

Aldizkarian ematen den informazioa nahikoa al da herriko egoera zein den jakiteko?

Bai, nahikoa izaten da, denetik azaltzen baita bertan, baina hala ere, askotan joaten naiz Usurbila eta ikusten dudanarekin eta irakurtzen dudanarekin izaten dut herriko egoeraren berri. Bestela ere, familikoekin bitartez

gauza batzuk jakiten ditut.

Aldizkaria irakurtzeko denbora asko hartzen al duzu? Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Ez dakit zenbat denbora ematen dudan, baina normalean dena irakurtzen dut, goitik behera. Irakurtzea, gainera, asko gustatzen zait; edozein gauza irakurtzen dut. Eta gustatu, dena gustatzen zait; ez dakit zer gehiago edo zer gutxiago.

Interesgarriak al dira zuretzat bertan azaltzen diren berri eta kontuak?

Bai. Nik gustora irakurtzen dut eta denetik ateratzen dela iruditzen zait. Gainera herrian bizi ez naizenez polita izaten da kontu ezberdinak irakurtzea.

Zerbait kendu ala jarriko al zenioke aldizkariari?

Ez nioke ezer jarriko, ezta kendu ere. Dagoen bezala utziko nuke, ez zait iruditzen aldatarik behar duenik.

Hamabostero alearen zain egoten omen zara, ezta?

Bai. Asko gustatzen zait irakurtzea eta gustora hartzen dut etortzen denean. Etxean Euskaldunon Egunkariako harpidedun ere bagara, eta irakurtzeko den guztia gustora hartzen dut nik.

Olatz Lasagabaster

gorriti
EDARITEGIA
kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

 **Kima** 
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

TXOKOALDE

Akerraren web orria

Imanol Goenaga



Noaualren 100. alea iritsi zaigu eta gure auzo txiki honen inguruan artikulo mordoxka aterata dagoeneko. Hain auzo txikia izanik ez da lan makala izan, ez baita erraza izaten zertaz idatzi asmatzea. Askotan gure artikuloetan ez ziren gertakizun eta kontu asko azalduko, horregatik, auzoko

edonork beste auzoei zerbait adierazi nahi izanez gero, hemen du aukera. Ea ba hone-lan beste 100 artikulo edo gehiagoko idazten ditugun.

Bestalde, aurten ere hasiak dira dagoeneko ehiztari eta anguleroak beren eginbeharretan. Egunez tiroak entzuten dira

auzoko edozein lekutan, eta gauez anguleroen argiak ikusten dira ibai ertzetan. Ez omen dute angula askorik ateratzen, baina hasiak dira behintzat.

Azkenik, eta bukatzeko, auzoko gazteok, Akerra gaztetxearen web orria aterata dugula esan behar dizuet. Hauxe da

helbidea: www.geocities.com/akerragaztetxea. Bertan gaztetxearen azken urteetako historia laburra kontatzen dugu beste hainbat gauzen artean. Nahiz eta oraindik bukatzeke egon sarean da dagoeneko, eta hori ez da gutxi.



AKERRA GAZTETXEA
 web: www.geocities.com/akerra_99
 e-mail: akerragaztetxea@ozu.es

KALEBERRI

Azaroaren bata

Eneko Harreguy



Azaroaren bata da. Beste-lan esanda, Santtu Guztien eguna. Kasualitatea, baina, jakinarazi didate lagun batek auto istripua izan duela bart ez dakit non eta ez dakit nola; eta, egia esan, horrek ez dit inportik, axola zaidan lagunaren egoera da. Hasera batean asko urduritu banaiz ere orain lasaiago nago, ez omen da susto bat izatetik pasa eta. Eskerrak. Hala ere, betiko jarduna entzun eta gero utzi didate alde egiten: "ikusten, gaur egungo gazteak harrotu egiten zarete edana eta bolantearekin". Ez diot arrazoirik kenduko, begi bistakoa da eta hala dela.

Azaroaren bat da. Bestela esanda, aspaldiko partez idema izan den eguna. Patxi

Illarreta oreretarraren idi hauek ez omen zuten batere lan erraza egiteko; idizainek ere ez seguraski, ez dakit, ez naiz honetan aditua baina, lau idi bateratzeak ez du ahuntzaren gauerdiko eztula izan behar. Ez zuten oztopo hau bakarrik, ordea. Nire ustez, bi gehiago ere baziren. Batetik 3800 kiloko harria mugitu behar zutelako, eta ez 2000 kiloko harri normala dena. Eta bestetik, aspaldi modan dagoen ordu erdiko lana egin ordez, hamar minutu orduz azpitikako lana egin behar zutelako. Lana da gero!

Baina entzunda dakit harri horiek mugitu dituzten bakarrak ez direla idiak. Baita pertsonak ere, ikusi baititut Elkarte ezberdinak elkarren artean indarrak neurtzen, baina ez naiz ari

gizon horietaz edo gizon-probetaz. Gu baino dexente zaharragoak diren beste batzuetaz baino. Hauek ere, oraingo gazteak bezala, edanarekin harrotuta zebiltzala, makina bat saiatu ziren dema plazako harritzar horiek mugitzen.

Esango didazue aldea bada-goela autoarekin azkar eta zirkuan bezala ibiltzea eta harritzar haundiok mugitzen ibiltzearen artean. Dударik gabe, ez dut zalantza izpirik, baina gus-tatuko litzaidake jakitea gu baino dexente helduagoa den batek zer egingo lukeen sasoi harekin harria mugitzen ari zen orduan aldamenean kotxea izango balu. Eta honekin ez dut gaur egungo gazteen burua zuritu nahi baina...

KALEZAR

Kendu jarri-jarri kendu

Andoni Udabe



Harritzekua! Orain ere iritsi da aurretik altxa eta dotore jarritako guztia puskatzeko ordua. Gure auzoko kale kantoiei buruz ari naiz. Batetik Illarramendi aurrekoa bidea dela eta ez dela, puskatu eta puskatu Errebaltxiki aurreraino etorri dira makinak. Eta halako batean hara non ohartzen garen laster gasaren hodiak pasatzen hasi behar dutela. Hau dek marka hau! Obra batzuk bukatu eta besteak hasi! Honek herriko

langabezia tasa jeisten lagunduko balu sikiera! Obretako langileek badute lana franko Usurbil inguru hauetan, ez daude kexatzeko moduan.

Hilabete batzuk barru gas hodiak sartu behar omen dituz-



te Kalezarko etxeetara gasa iritsi dadin, beraz kaleetako adokinak kendu eta zuloak egin beharko dituzte (halako adokin politak eta...). Bukatzen dutenean dotore geldituko dela pentsatu beharko dugu, gasarena erosotasun haundia da. Baina bien bitartean: makina hotsak, langileen builak (hi zatua pasa iak! ta nere bakailua! Esan dit ba hoi ez huala puskatu bihar! Redios!

Tabernetan ere hoi en antzeko zaratak jasaten baditugu hauetara ere jarriko gara. Ea obra guztiak bukatzen dituzten, gehiengoz inguru hauetan. Earroekixe!

ATXEGALDE

Jarraituko al du?

Ondo gogoan dut noiz hasi nintzen orduan hain arrotza sentitzen nuen izena daraman aldizkari honetan. Arratsalde hartan nire izena zeraman sobre bat eman zidan Noaua!ko buru zebilen batek. Orduan errespetuz begiratu eta milesker lotsati batekin erantzun nion, kasu horietan ohikoa den galdera egin gabe: zer darama sobre honek? Ail! inuxentea ni. Orduan errespetuzko begirada zena orain lagunarteko solasaldi bihurtu da, baita ordu txikitako taberna zuloko konfidentzia. Behin egiak esaten hasita...

Gainera, nire izena ez zegoen eskuz idatzita, makinaz baik. Txorakeria dirudien arren, inportanteago sentitzen zara zure izena makinaz idatzita bada-

go, halako lanak hartzea ere? garrantzitsua behar du izan.

Zerbait banekien, entzun nuen herrian aldizkari bat sortzekotan zirela...eta ez nengoen lasai, nik ere kazetari izan nahi nuen. Hala bada, sobre misteriotsu hark, nire izena makinaz idatzita zeraman sobreak, nire auzoko "kronista" izateko aukera eskaini zidan. Nire erantzuna soberan dakizue.

Badira urte batzuk, bada, mundu honetan muturra sartzen hasi nintzela eta konturaterako, bai ni eta bai nire ingurukoak, muturra ezezik gorputz eta arima eskaini genion Noaua!ri (jakin beza irakurleak hitz egiteko modua dela, hain mistika ere ez bainaiz).

Auskalo zenbat kroniketan

bazter guztiak nahastu eta aspertu ere, aspertu ditut. Batzuk segituan hasi zitzaizkidan kexaka, eskilara eta obra kontuekin nazkatuta zeudela. Nire kroniken norabidea aldatuta ere, denak ez zeuden gustura, ez zutela zertan nire "paranoiarik" jasan behar. Zer egingo diogu ba?

Onartu beharra daukat, are gehiago ipuin txiki honen ostean, nire burutazio eta "paranoien" munduan murgilduta eroso heltzen diodala tartetxo honi, ze arraiol!

Baina ipuin honen amaian "jarraituko du" idatzi nahi nuke eta, horretarako, beste ehun aleei eusten laguntza izan beharko dugula gauza jakina da. Zuen zain gaude.

Amagoia Mujika



SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



Garai bateko auzotarrak oraindik ere

Guztiok daukagu halako joera izkutu bat, gauden garaian egonda ere, beti garai bateko kontuak aipatzeko.

Gogoratzen al haiz garai bateko auzoko festez? Gogoa al dituk/n lehen izaten ziren eskubalo partidak? Badi-rudi denboraren urruntasunarekin aspaldi gertatutako hura idolatratzeko joera dugula.

Eta zertara dator, ba, hau guztia? Aurreko asteburuan, gure aldizkariaren urtebetetze berezia aitzaki hartuta, zikiroa bapo jateko aukera izan zuten herritarrek. Guk jende

gehiago espero arren, azkenean 80 bat pertsona gerturatu zen pilotalekura bazkaltzera. Hau ikusita, harrituta galdetzen zuen gure auzotar batek: zer gertatzen da Usurbilen? Santueneako jaietan zikiro jana antolatu eta 100 pertsonatik

gora elkartzen da, herrian, berriz ezin bildu 100 pertsona.

Halaxe da. Nahiz eta askotan pentsatu auzotako elkarkidetzaren gainbehera doala, ez da hala. Normalean gure auzoan festaren bat edo antolatzean auzotarrek ondo erantzuten dute, ez dute huts egingen.

Hau ere zerbait bada, garai bateko partidak, festak, giroa, agian, ez da izango, bai, ordea, garai bateko auzotarrak. Festa-rako, behinik behin, biltzen bagara pozik egoteko moduan gaude, ez da gutxi eta!



URDAIAGA

Tiro hotsa

Joseba Zubeldia



Urtero lege, ehiza denboraldian sartuta gauden honetan, gure auzoak bisitari ugari jaso ditu, eskopeta eskuan hartuta gerturatzen den ehiztari ugari. Egun batzuetan gehiago eta bestetan guxtiago, uso eta birigarro talde asko sartu da kaxko honetan, gainera, azken egunotako hego-haize zakarra medio, uso eta birigarroen igerotzea areagotu egin da.

Hau dela eta ehiztariak oso gustukoa dute inguru hau. Egunero, eta goizean goiz hasita, tiro hotsak eguerdira arte luzatzen dira. Askotan, gainera, tiroaren gertutasuna dela eta,

kartutxoaren perdigoi hotsa entzun ohi da buru gainean, beraz, ehiztariak arreta pixka bat eskatu behar inguruan jendea dabilenean, behintzat.

Gainerantzean, aspaldian izandako eurite haundiek lur-jauzi eta putzutxo asko sorrarazi dituzte. Hori bai, belardiak ere berdeberde daude euriari esker. Zuhaitzei, berriz, hosto gehienak erori zaizkie urte sasoi honetan gertatu ohi den lez.

Gure auzoko deskribapena egin arren, tarte honetan ezin isaltu gure inguruko paisaiaren edertasuna. Beraz, badakizue non gauden. Laister arte!



AGINAGA

Heldu da...

Eguraldiari erreparatuz gero, guregana udazkena heldu denaren dudarik ez dago, eguna joan eta eguna etorri euria baitugu protagonista. Garaiz bildu ez diren azken babarrunak biltzeko denbora tarte haundirik ez du uzten euriak, eta heltzen direnean zelaian bertan geratuko dira usteltzen. Azken sagarrak biltzeko garaia ere iritsi da, sagardogileek dagoeneko aurreratu dute aurtengo sagar jotzea.

Baratza kontuak albo batera utzi eta beste gai bati heldu behar diot orain; Santu Guztien egunari, edo lore-saltzaileen eguna esan behar?

Gure hilerriek benetan itxura ederra hartu zuten egun honetan hainbeste apaindura eta lorez hornituta. Egia esan, gaur egungo egoera ez da garai batekoaren antzekoa. Orain, udalaren parte-hartze zuzenari esker, hilerria txukun-txukun mantentzen da urte osoan zehar.

Baratzak, loreak...udazkena iritsita ezin ehiza aipatu gabe utzi. Heldu da ehizarako garaia, usotarako batez ere. Erriberan entzuten diren tiro hotsak kontuan hartuz, bertan uso postuak daudela dirudi, arto jatera jaisten den uso askok eta askok bertan egiten baitu geldialdia.

Manuel Begiristain



Ehiztariak ez dute kontuan hartzen erriberan jende asko lanean aritzen dela, artoa dagoen parajeetan, hain zuzen ere, eta susto galantak hartzen dituzte nekazariak. Gainera, ehiztariak utzitako plastikozko kartutxo ustelak ere jasan behar dituzte, hauek ez baitituzte jasotzen..

Txakurra daramatenak, berriz, ez dira ohartzen hauek egiten dituzten kalteez: arbi, baba, ilar eta letxu artean ibiltzen baitira inongo konturik izan gabe. Ez dakit zenbateraino diren bate-ragarriak ehiza eta nekazaritza honelako erriberetan.

ZUBIETA

Hostalaritza

Batek baino gehiagok pentsatuko du Zubietako sektore garrantzitsuena nekazaritzarena dela eta, honek garrantzia badu ere, izugarria da hostalaritzak duen pisua gure herrian. Kontuan hartu behar dugu, hain herri txikia den honetan, zortzi bat jatetxe eta sagardotegi ditugula, eta hauetako batzuk ez dira hain txikiak.

Hauek guztiek asteburuero (baita astean zehar ere) jende ugari erakartzen dute inguru hauetara, bai Lasarte zein Usurbildik eta baita inguruko herrietatik ere. Gainera, jende askok

bazkalosteko paseotxoak egiteko aukera aprobetxatzen du eta, modu honetara, larunbat edo igande polit bat pasa. Hala ere, gauez afaltzera etorritzen direnak ere ez dira gutxi izaten, eta bestela galdetu plaza edo hipodromo inguruan bizi direnei larunbat gauetan entzuten den kotxeen joan-etorriei! Denetik ikusten da, gainera, bikoteak, familiak, koadrilak...

Horrez gain, ohiko hostalaritzaz haratago ostatu eta hotel bat ere baditugu, ez oso haun-

diak, baina bai erakargarriak, asteburu bat edo egun batzuk Zubietan igaro eta inguru hau ezagutu nahi duenarentzat. Nork esan hain herri txikiak hainbeste eman zezakeenik!

Olatz de Miguel



2001.urtetik aurrera ez da derrigorrezko soldadutzarik izango

Duela urte batzuk euren burua intsumiso aitortu zuten askok, ez zuten pentsatuko handik urte gutxira arazoa desagertua egongo zenik. Baina 2001. urtetik aurrera ez da derrigorrezkoa izango soldadutza egitea. Intsumisoak garaile atera dira, baina lan asko du oraindik egiteko ejerzitorik gabe bizi nahi duen jendeak, hori baita helburu orokorra bere burua antimilitarizatatzat jotzen duen pertsona ororentzat. Bitartean orain arte lortutakoa gutxi ez dela eta, ospatu beharra ikusi eta azaroaren 18an jaialdia antolatu du Usurbilen Kakitzat taldeak.

Duela hamar bat urte hasi ziren azaltzen lehen intsumisoak, bai Euskal Herrian baita espainiar estatuan ere. Gazte haiek beraien burua intsumiso bezala aurkeztu eta era horretan soldadutzara joateari uko egiten zioten, ez baitzetozen beraien printzipioekin bat Ejerzitoaren balore zein helburuak. Normalean zigorra jasotzen zuten ekintza hau zela eta; kartzela zigorra, urte batzuetarako inhabilitazioa...

Guztira 15.000 intsumiso inguru izan dira Euskal Herrian eta 25.000 inguru espainiar estatuan. Egoera hori aldatu egingo da denbora epe laburrean eta 2001 urtetik aurrera ja ez da derrigorrezkoa izango zerbitzu militarra egitea. Azken zozketa lehengo asteartean, hilaren 7an, izan zen eta 5.789 gazte sartu ziren bertan.

Hasiera hartan soldadutzaren aurkako lehen mugimenduak objezioaren aldetik etorri ziren. Objetore haiek zigortu egin zituzten, baina 1989an Objezio Legea onartu eta amnistiatu egin zituzten. Ordu-

tik aurrera hasi zen intsumisioa gorpuzten.

Egoera hori gainditu eta urteetan gizar-tean oihartzun zabala izan duen borroka hori alde batera gelditu da. Mugimenduak indar haundia izan zuen arren, orain dela bizpahiru urte gobernu espainiarrak derrigorrezko soldadutza desagertuko zela iragarri zuenean, indarra galdu zuen eta hain jendetsuak ziren mobilizazio haiek alde batera geratu ziren.

"Guk Intsumisioa estrategia bezala hartu genuen, ez helburu bezala", esan digu **Ander Arteagak**. Ander Kakitzat taldeko kidea da eta beraien helburua Ejerzitoa mintzea

Ejerzitoen desagerpenerako bidean pauso bat izan da soldadutzaren desagerpena

dela adierazi digu. "Kaleko jendeak helburua soldaduskarerekin bukatzea zela ulertu arren, guk beste pauso bat eman behar dela ikusten dugu", dio Anderrek. Dena den, ez dakite nondik-nora jo eta adibide bezala gastu mili-



tarrak aipatzen ditu. "Gure helburua mugimendu sozial haundi hori berpiztea da eta gizartea lehen bezainbeste inplikatzeko", adierazi digu.

Intsumisioa garaipen bat izan da

Esan digunez, beraientzako garaipen bat izan da soldaduskarekin amaitzea, baina borroka antimilitaristaren helburu orokorra lortzeko, hau da, ejerzitoak desagertzeko borrokan, pauso bat besterik ez da izan, bitarteko bat. "Orain PP eta PSOE alderdiek soldadutza beraiei esker desagertu dela sinistarazi nahiko diote gizarte-ari eta hori horrela ez dela adierazten ere lan haundia izango dugu. Bai guk eta baita gizarteak ere zeresan haundia izan baitugu desagertzen horretan".

Herrian ere intsumisioak bere bultzada izan zuen lehenengo garai haietan. 1991urtean

Usurbilgo Talde Antimilitarista sortu zen eta gerora, 1995an, Usurbil Intsumitua izenarekin segi zuen lanean. **Joxe Mari Izeta** eta **Luis Mari Ormaetxea** hasiera hartan ibili ziren, hau da Usurbilgo Talde Antimilitaristan.

Biek zuten oso garbi gazte-gaztetatik ez zutela soldadutzara joan nahi eta inork ez zituela arma bat hartzea behartuko. Diotenez, zorte handia izan zuten eta kartzela zigorra jaso arren ez zuten espetxea zapaldu, zigorra ez baitzen urte betera iristen eta legearen arabera zigorrak urte bete baino gehiagokoa izan behar du, bestela aurrekaririk ez baduzu ezin zaituzte barneratu.

Joxe Mari **Jon Sarasua** bertsolariaren bitartez jaso zuen mugimendu berri hari buruzko informazioa. Bizi izan zuen esperientzia oso polita izan zela esan digu, baina oraindik lan handia egin beharra dago bere ustez.

Zentzu honetan Luis Mari bat dator berarekin. "Desagerpe-

Azken zozketa joan den astearte- an egin zen eta 5,789 euskal gazte sartu ziren bertan

na pauso bat da, baina oraindik lan handia dago egiteko. Estatu espainiarrak Ejerzito profesionala egituratu nahi du eta orain aldaketa prozesu batean dago; aldaketa prozesuak une egokiak izaten dira indarra egiteko eta orain da lan egiteko momentua". Kritiko agertzen da beraz, soldadus-karen desagerpena garaipen batekin parekatzerako orduan: "Objezio fiskalaren inguruan lana badago eta koarteleetako intsumisioa ere hor dago. Garaipena ejerzitioa desagertzen denean emango da eta ez lehenago".

Luis Mari KEM-MOC taldearekin jarri zen kontaktuan hasiera hartan eta Usurbilen taldea sortzen laguntzeko prest zudelaren esan zioten. 1991 urtea

baino lehenago beraien burua intsumisio aitortu zutenak hasi ziren taldean, zazpi lagun inguru, eta 1995erako hogeita hamar bat pertsona ziren taldekideak. Beraien lan esparrua Usurbilen zegoen kokatua, baina Luis Mariaren hitzetan, talde bezala ez zen definitu.

"Hau ospatu beharra dago"

Desagerpen hau ospatu beharra dagoela pentsatu dute Kakitzat-eko kideek eta azaroaren 18an jaialdi bat antolatu dute "Lortu dugu, lor dezakegu" lelopean. Usurbil izan da soldadutzaren desagerpena ospatzeko aukeratu duten herria. Bertan zera jakinarazi nahi doite jendeari: borroka ez dela amaitu eta mugimendu antimilitaristak aurrera jarraitu behar duela. Kontzertua izango da jaialdi honetan izango den gauzarik garrantzitsuenak, baina hasierarako ekitaldi bat ere iragarri dute.

Olatz Lasagabaster

Alkate postuan urtebeteko suspentsioa eta 200.000 pezetako isuna Joxe Antonio altunari



Herriko alkateak behin baino gehiagotan pasa behar izan du epaitegietatik. Arrazoiak, bakarrik: espainiar armadarekin ez kolaboratzea. Udala intsumitu egin zen espainiar armadarekiko, eta honi herriko gazteen zerrenda ez bidaltzea erabaki zuen udalbatzan hartutako erabakiaren ondorioz.

Guzti honegatik epaiketa bat baino gehiago izan ditu alkateak, eta gogoz kontra epaitegira ere eramana izan da. Hala ere, orain arteko epaiak bere aldekoak izan dira. 1996 eta 1997an ez kola-

boratzeagatik, adibidez, ez zuten zigortu. Argudio berdinak erabiliz, ordea, 1994 eta 1995ean ez kolaboratzeagatik 200.000 pezetako isuna eta urte bateko suspentsioa jarri diote.

Zer esan nahi du epai honek? Alkateak urtebetez ezingo duela alkate edo zinegotzi postua bete. Noaua!k jakin ahal izan duenez alkateak urtearen hasieratik beteko du Donostiako epaitegiak jarri dio zigorra. Beraz, 2001. urtean Agustin Lizasok beteko du Joxe Antonio Altunak utzitako postua.



arkesane
petriletik

Artista ugariren lanak ikusteko aukera izan zen Santu Guztien Egunean

Jende ugari bildu zen azaroaren 1ean Aitzaga Kultur Elkarteak antolatzen duen Usurbilgo Eskulangintza azokaren VI. edizioan. Herriko artisau eta eskulangileez gain inguruko herrietako artisten lanak egon ziren ikusgai eta erosgai herriko frontoian. Denetarik topatu zuten bertara gerturatu zirenek: eskuz egindako altzariak, etxerako apaingarri bitxiak, larruzko lanak, ezta, ukenduak, barazkiak...

Eskulangintza postu guztien artean, gauza bitxi ugari ikusi ahal izan zen, baina izan zen gure arreta bereganatu zuenetako bat. Jabier Argai-zek berak egindako biola eta biolinak jarri zituen ikusgai eta aldi berean hauetako bat egiten egon zen azokak iraun zuen bitartean. Donostiar honek Usurbilen daukan baserrian egiten ditu biola, biolinak eta organoak. Horrez gain, konpondu ere egiten ditu.




Berri

Noaua!!

100. aleko gehigarria


reportaje



Pil-pilean

Porrusalda

Beste 100 baietz!



Usurbilgo Udala

**HERRIAN ETA
UDAL-ADMINISTRAZIOAN
EUSKARAZ BIZITZEKO
AHALEGINAK EGITEN
DIHARDUGU**

EKIN EUSKARARI

*Zorionak Noaue! hamaboskariari
orain arteko lanarengatik*

Beste 100 baietz!

USURBILGO UDALA - KULTURA BATZORDEA

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
http://www.topagunea.com/noaua/

Kazetariaren koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Monterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zalao Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Beste 100 baietz!

Zenbait usurbildarrek gehigarri hau hartzerako, besteak **Noaua!** besterik agertzen ez den gehigarri hau ikusteaz nazkatuta egongo dira. Ba du horrek arrazoi bat. 100. alea azaroaren 10ean aterako bada ere, guk aurrea hartu eta azaroaren 4an izango den "Beste 100 baietz!" egun osoko festarako gehigarri mardul hau kaleratu nahi izan dugu. Bertara gerturatzen denak 100.alea etxera iritsi baino lehen eskua artean ibilia izango du gehigarri hau, besteok 100.alearen babesean jasoa izango duzue.

Herrian gertatutakoa hama-bostean behin zuenganatzen saiatu izan gara orain arte, eta horrela jarraituko dugu aurrerantzean ere, baina oraingo honetan etxe barrura begiradaxo bat botatzea ere bidezkoa iruditu zaigu. Apustu egingo genuke zuetako askok aldizkaria nola egiten den, zenbat jende mugitzen duen **Noaua!** bezalako elkarte batek eta gehigarri honetan irakurri ahal izango dituzuen beste hainbat gauza ez dituzuela jakingo. Bada hementxe duzue aukera, publizitate tartean zer irakurria aurkituko duzue.

Hemen behintzat beste baterako utzi ditugu udaleko kontuak, baita kirol gaiak ere. Hikamikaren tarterik ere ez duzue aurkituko eta azken bi asteetan gertatutakoaren berri jakin nahi baduzue 100. aleruntz bideratu beharko dituzue begiak, eta ez gehigarri honetara.


36 orrialde dituzue esku artean, jenero pottoloa dudarik gabe. Orain arte egin ditugu gehigarriekin alderatuz, behintzat, marka guztiak apurtu ditugu. Ez bakarrik orrialde kopuruan, baita berau sortzeko izan dugun denboran ere. Izan ere, astebeteko epea izan dugu horretarako, eta gure betiko marxtatik aldenduta aztoratu xamar ibili gara guztiok. Saiatu faltagatik behintzat ez da izango.

100 ale kaleratu ditugu, ez da marka makala. Zenbaki honetara iritsiagatik, ordea, ez da **Noaua!**ren soka etengo. Hemendik aurrera ere zuen postontzietan izango baita herriko aldizkaria. "Beste 100 baietz"... erronka zaila jarri diogu gure aldizkariari, baina orain arteko marxta ikusita zenbaki hori oso urrun ikusten dugunik ezin esan; laster jango diogu bidea kopuru horri ere.

Asko eta asko dira 100 ale hauetan **Noaua!** aldizkarian nahiz elkartearen bere laguntzatxoa eman dutenak. Hori bai, denok egindakoa gehigarri honetan jasotzea ezinezkoa egin zaigu. Izen ugari ikusi ahal izango dituzu datozen orrialdeetan, baina zuen bultzatxoa emanda ere bertan agertzen ez bazarete ez gaizki hartu. Denok duzue leku bat **Noaua!**ren historian. Ea ba orain arte eman duzuen laguntza horren bultzada sentitzen dugun aurrerantzean ere. Zorionak **Noaua!** eta urteaskoan!

Erredakzio kontseilua





Eustakio Arrojeria

Elhuyar-eko zuzendaria

“Alabaina, onurak onura, arriskuak arrisku, beste 100 baietz!”

Zein dira Noaua!ri ikusten dizkiozun alde onak?

Noaua! bezalako herri-aldizkari baten onurak era askotakoak eta ugariak badira ere, lau nabarmendu nahi nituzke:

- 1.- Euskara ikasten ari denarentzat material osagarri aproposa izatea.
- 2.- Euskaldun alfabetatugabeak ere irakurtzeko modukoa izatea. Hau da, euskararen normalizazioaren aldeko tresna izatea.
- 3.- Herriko eta herritarren berri izateko egokia izatea.
- 4.- Herritarrok gure iritziak plazaratzeko aukera eskaintzea.

Zein dira Noaua!ri ikusten dizkiozun alde txarrak?

Alderdi negatiboak baino arriskuak dira horrelako aldizkari bati ikusten dizkiodanak:


- 1.- Herritarren iritzia plazaratzeko tresna izan beharrean, elkar erasotzeko tresna bilakatzea.
- 2.- Usurbil eta usurbildarren kontuetara mugatzeak badu bere xarma, baina baita arriskua eta gabezia ere: esamesetan erortzea eta interes orokorreko gaiak ez tratatzea.
- 3.- Euskaraz komunikatzen den aldizkaria izanik, herriko erdal komunitatea kanpo uztekoarena.

Zein dira Noaua!ri ikusten dizkiozun alde onak?

Noaua! herri prentsa edo lekuko prentsa deitu denaren ildotik jaio eta hazi da eta funtzio garrantzizkoak betetzen ditu. Batetik, euskararen normalizazio tresna garrantzizkoa da, euskaraz irakurtzen ez dutenei bultzatuz, ez dakitenei ikasteko beste motibo bat gehiago emanez, kolaboratzaile eta iritzienak trebatuz, eta abar. Bestetik, komunikazio eta ezagutza tresna indartsua da, eta hori ere inportantea da herri batean. Noaua! dagoenetik Usurbilen bizi gehiago dagoela dirudi. Kanpoan bizi garen herritarrei, gainera, gure jaioterriarekiko lotura mantentzen laguntzen digu.

Zein dira Noaua!ri ikusten dizkiozun alde txarrak?

Lanean ari dena jabetzen da inor baino hobeto zertara ez den ondo iristen. Alde horretatik, aholku handirik ez diot inori emango. Baina denbora ez da gelditzen, eta Noaua! proiektuak asmatu behar du garai berriei eten gabe egokitzen. Zer izan behar du datorren urtean edo bi urte barru? Herri prentsa guztiak bezala, Noaua!-k ere aldatu egin behar du, ingurua etengabe aldatzen ari da eta. Galdera hau da: bai euskararen normalizazio helburua eta bai komunikazio helburua lortzeko bidean zein formula erabili daitezke eta zein da koste-efikazia emaitza onena eskaintzen duena? Gaur duen hamaboskari formato berean mantendu behar da? Ala beste formato eta aldizkotasun batera pasatzea litzateke hobeto? Zer estimatuko luke herritarrek? Galdera asko egin ditudala? Erantzun ezberdinak hor daude: Arrasatekoa, Lasartekoa eta Hernanikoa. Animo.




Pello Zubiria

Argia astekariko zuzendaria

“Noaua! dagoenetik Usurbilen bizi gehiago dagoela dirudi”

Bazkide kopurua



Bestelakoak

☞ **Noaua!** aldizkariaren lehen alea 1996ko ekainaren 28an argitaratu bazen ere, urte bereko maiatzean, Sagardo Egunean hain zuzen ere, 0.alea kalean zen dagoeneko. Bertan, hamabostean behin etxean jasotzen duzun aldizkari honen proiektuaren berri ematen zen besteak beste.

☞ 1996. urtean 10 ale kaleratu ziren eta Noaua! Kultur Elkartearen aurrekontua lau milioi pezeta ingurukoa izan zen. 2000. urte honetan, ordea, bestelakoa da aldizkariaren nahiz aurrekontuaren itxura. 23 ale kaleratzeaz gain, aurrekontua hamar milioi pezeta ingurura gerturatuko da.

☞ Zuen etxeetara iritsi diren 99 aleetako orrialde kopurua batu ondoren zenbaki hauek ateratu ditugu: **Noaua!k** guztira 2486 orrialde kaleratu ditu. Hauetatik 204 orrialde gehigarriak egiteko erabili dira, eta 1997ko ekainaren 1eko uholdeen inguruko argazkiak osatu zuten lehen gehigarria.

☞ 1999ko ekainaren 14ko data ere historiarako geldituko da. Aurreko egunean izan ziren udal hauteskundeetako herriko emaitzen berri ematen zuen ale berezia irakurleen eskura zen hauek esnatzerako. Lau orrialdetan emaitzen berri zehatza jaso ahal izan zuten usurbildarrek.

☞ 80. aletik aurrera **Noaua!** koloreztatuta iristen da zuen etxeetara. Aldizkaria erakargarriagoa egin nahian lehen eta azken bi orrialdeak eta gabonetako gehigarria kolore bizi-biziekina irten zen inprentatik. Noski, emaitza ikusita azken 20 aleetan ere kolorerik ez da falta izan.

☞ Asko eta asko izan dira 99 ale hauetan gure aldizkarian publizitatea jarri izan dutenak. Guztira 170 izan dira **Noaua!k** izan dituen bezeroak. Dendek, tabernek, elkarteek, akademiek, ikastolak, enpresek... guztiek dute 100. alera iritsi izanaren "errua". Aurrerantzean ere ez dugu gutxiago espero.



P r e n t s a
independientearen
a l d e !



**Agurtzane
Alkorta**
Atxegalde

Ondo dago, ez nioke ezer erantsiko, eta kendu ere ez. Normalean kafea hartzen, etxean edo tabernan irakurtzen dut. Ez dakit zein atal den gehien gustatzen zaidana eta batzuetan goitik behera irakurtzen dut eta beste batzuetan, gainetik.



**Pako
Agudo**
Santuenea

Gehien gustatzen zaidana herriko gauzei buruz hitz egiten duela da, eta herriko gauzak ezagutzea gogoko dut. Normalean etxean irakurtzen dut, bazkaldu ondoren. Ez nioke ezer erantsiko eta ez nioke ezer kenduko, ondo dago dagoen bezala.



**Larraitx
Izagirre**
Etxealdia

Etxean irakurtzen dut eta ordu erdi edo ordu bete inguru ematen dut. Gustora irakurtzen dut eta gehien gustatzen zaizkidan atalak Kalejiran, oharrak eta inkesta dira. Festak egon badira edo, hori ere beti irakurtzen dut. Ez nioke ezer kenduko ezta jarriko ere.



**Lurdes
Hueta**
Bizkarre

Gehien begiratzen dudana urtebetetzeen orria da. Aldizkaria asko gustatzen zait eta etxean irakurtzen dut. Ez nuke ezer kenduko, egia esan denetik du pixka bat, herriko gauzei buruz informatzen zaitu. Berriketan eta kalejiran dira gehien gustatzen zaizkidan atalak.



**Ana
Tello**
Santuenea

Gainetik begiratze dut, besterik gabe. *Kalejiran* atala da gehien begiratzen dudana. Etxean irakurtzen dut, iritsi eta berehala. Ez nioke ezer jarriko, ezta kenduko ere. Ongi dago dagoen bezala, nik uste dut denetik aipatzen duela.



**Zuhaitz
Zubeldia**
Aginaga

Gehien gustatzen zaidana *Kalejiran* saila da eta gutxienean Zer Irizten. Hamar minututan irakurtzen dut gehienetan eta kirolari tarte haundiagoa ematea gustatuko litzaidake.





**Jose Maria
Mendiluze**
Arratzain

Noaua!k ematen duen informazioa jasotzea gustatzen zait dudarik gabe. Guztia ez dut irakurtzen baina, atal guztiei ematen diet begirada bat. Hala ere auzoetako kronikak irakurtzen ditut gustokoen. Baserritarren protestak gehiagotan azaldu beharko lukete, baina gure errua ere bada, horien berri ez baitugu. Normalean sozietatean irakurtzen dut larunbat eta igande goizetan.



**Yolanda
Arrieta**
Kaleberri

Oso gustora irakurtzen dut eta goitik behera, gainera. Beti aldatu daitezke gauzak, baina denbora gehiago beharko nuke horri erantzuteko. Lasai-lasai nagoenean irakurtzea gustatzen zait. Berriketan atala gustatzen zait eta iritzia ere ondo egoten da, erreportaiak ere bai, urtebetetzeak...dena.



**Xabier
Iraola**
Kale Nagusia

Herriko aldizkari bezala oso ongi dago, herriko martxa ezagutzeko. Behar zen gauza bat da. Ez nuke ezer aldatuko eta gehitu ere ez. Edukin aldetik ere oso ondo dago. Kalejiran da gehien gustatzen zaidan atala. Etxean irakurtzen dut eta ale berdina behin baino gehiagotan hartzen dut irakurtzeko.



**Bakartxo
Segurola**
Arrobitxulo

Txutxumutxuak eta, asko gustatzen zaizkit eta Zer Irizten? ere bai. Nekazaritza arloko gauza gehiago sartuko nitzuke. Normalean etxean irakurtzen dut eta iristen denean korrika hartzen dut. Dena irakurtzen dut eta ez nuke ezer kenduko.



**Patxi
Lizaso**
Atxegalde

Herrian jende gehienak irakurtzen duen aldizkari bat da, baina hortik aurrera askotan fun-
damentu gabeko kexa asko ater-
ratzen direla iruditzen zait. Gauza positiboak gehiago atera behar-
ko lirateke jendeari ilusio pixkat emateko. Gehien gustatzen zaidan atala *Kalejiran* da.



**Karmele
Hevia**
Zubieta

Leku polita da herriaren kontuak azaltzeko. Gehien gustatzen zaidan atala iritziaarena da eta gero, berriak, jendeak askotan ez du beste auzoen berri eta hori polita izaten da. Momentu librean ditudanean irakurtzen dut eta ohean edo salan nagoela, normalean.

oaua!ri
uzun
Non
duzu?
antsiko
e? Eta
u?



- ✎ Matematika ✎ Ingeles
- ✎ Fisika ✎ Informatika
- ✎ Kimika

Maila guztietan

Zorionak Noaua!

Kale Nagusia, 10 behe atzeko aldea



Txokoalde, Tlf; 943 37 16 49

Illunbe

SAGARDOTEGIA

✕ Sagardotegi eta jatetxeko
menua egunero

✕ Aukera zabala jakietan

**Noaua egunean dastatu
herriko sagardoa**

Z o r i o n a k !

Zumeta Jatetxea



ZUMETA MENUAK (Gutxienez 2 lagunentzat)

- ✕ Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarratz
- ✕ Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- ✕ Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- ✕ Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsetan
- ✕ Etxeko azkenburuko dastapena
- ✕ Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)



USURBIL
O P T I K A

Zubiaurrenea, 10
Telf eta faxa:
943 37 02 69

Ana Perez Telletxea

· OPTIKA

· OPTOMETRISTA

· AUDIOPRETESISTA

· KONTAKTOLOGA

**Hilabete hauetan oferta
paregabeak aurkituko
dituzu:**

✕ Jubilatuentzako betaurrekoak: **7.500 pta.**

✕ Lente progresiboak: **19.000 pta.**

✕ Monturak **prezio erdian**

✕ Eguzkitako betaurrekoak **prezio erdian**

**Noauako bazkideek %10eko
beherapena Usurbil Optikan**

Zorionak Noaua!

IRRATI TABERNA



Noaua egunean garagardo
prexkua aurkituko duzu!

ZORIONAK!

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUA.
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK.
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUA
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua



Bigarrenengo solairua

BENTARAKOAK
BENTRIK NATOR...



Onpo pasa Noaua
egunean eta
Zorionak guztioi!

Igandetan ganba-ziri mundialak!

SETABU TAILERRAK, S.M. ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK

PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Zorionak Noaua!

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usturbi (Gipuzkoa)

TEL: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67

Horrela egiten dugu

Erredakzio Kontseilua



Noaua! aldizkaria kaleratu baino bi aste lehenago biltzen gara eta **Garikoitz Udabe, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster, Agurtzane Solaberrieta eta Josu Aranberrik** osatzen dugu erredakzio taldea. Iritsi da azken alea, baina hau aztertzen hasi orduko hurrengo alerako gaiak zehaztu behar, hau da marka hau. Josuk gai zerrenda mahai gainean jarri du, eta oraingoan ere ez da aldizkaria betetzeko arazorik izango. "Zenbat orrialde izango ditu hurrengo aleak? Honek hiru orrialde emango ditu, izerdi patsetan sailak bat..." Argazkiak eta hitzak ikusten ez badira ere osatu dugu bi astetan zuen eskuetan egongo den aldizkaria. Lanak banatu eta... lanera!

Koadernoak, boligrafoak, telefonoak, grabagailuak eta ordenadoreak dira gure lan tresna nagusiak. Ahalik eta azkarren elkarriketa bat egin behar eta hor ibiliko gara herritarren bati, gehiago ez badira, "pelmada" ematen. Batek erreportala egiteko informazio gehiago behar duela, besteak hitz jario egokirik ez zaiola etortzen, ordenadoreak ez duela bere lana egin nahi... aldizkaria osatzeko izaten da nahikoa lan. Hala ere, kolaborazio modura idatziak bidaltzen dituzuenoi eskerrak eman beharrean gaude, gure bizkar gainetik pisua kentzeaz gain **Noaua!** aldizkaria guztiona izaten laguntzen duzuelako.



Kazetari taldea

Publizista



Behin erreportaiko gaiak erabakita eta kazetariak ere lanean hasita, nik ere nere zereginari eusten diot, publizitateari hain zuzen ere. Aleroko publizitate gehiena aldeztetik zehaztuta izaten badut ere, askotan hortxe ibiltzen naiz herriko komertzio eta enpresetan publizitate gehiagoren eskean; Santxabelak direla, Gabonak direla, Sagardo Eguneko gehigarria dela edota beste hainbat arrazoi direla. Askotan, agian, aspertzen bazaituet ere, komertziantek ulertuko duzuen bezala, horixe da nire lana, baita Noaua!ren diru-iturri garrantzitsuen ere. Beraz, eskerrik asko! zuek gabe ez baikenuke Noaua!rik kaleratuko.

Noaua! aldizkaria

Asteburua gerturatu ahala, telefonoaren txirrinarekin bat, dagoeneko ezaguna zaigun ahotza entzun ohi dugu: "Kaixo, Ama-goiia naiz...". Hori entzun bezain pronto bada-kigu martxan jarri behar dugula, auzoari erre-pasoa eman eta gure kronika idatzi behar bai-tugu. Ez da gauza erraza auzoari buruz idaz-tea, beti ez baitago zer kontaturik. Horregatik, askotan gure burutazioetan murgiltzen gara Kalejiran saileko tartetxo hori bete ahal izateko. Auzotarren laguntza ere izaten dugu, "hau idatzi behar dek, bestea konta ezan..." eta halako eskaerak askotan izaten baitira. Azkenean, gure kronikatxoak eskuartean, Noauaren egoitzara gerturatu eta postontzian botatzen dugu. Adio eta hurrengora arte!



Argazkilariak



Argazki kamara lepotik zintzilik dugula behin baino gehiagotan ikusiko gintuzuen han edo hemen. Artikuluetako eta erreportaietako argazkiak ateratzea da gure lana eta ekitaldia non han egoten gara gero aldizkarian agertuko diren argazkiak ateratzeko asmoz. Hutsegiteak ere eginak gara, baina tira, gure lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara. Lo askorik egin gabe batzuetan, karreterik gabe besteetan... ziur argazkietan atera-tzea gustokoa ez duzuenon argazkiren bat badugula gure argazki artxiboan. Hala ere, lasai, kotileoko orrialde arrosa atera bitartean salbu zaudete eta guztiok.

Juan Joxe Furundarena eta Marijo Maizen lekukoa hartu nuenetik, ni naiz, Eneko Harreguy, **Noaua!** aldizkariako euskara zuzentzailea. Kazetariak idatzitakoa aurrean hartu, eta hiztegiak aldamenean lagun hartuta hauen hankasartzeak, nabarmenak batzuetan, zuzentzen saiatzen naiz. **Noaua!**ko egoitzan batzuetan, etxean besteetan testuak errepasatu eta aldizkaria ahalik eta euskara txukunenean kaleratu dadin inor baino lehenago irakurtzen dut nik **Noaua!**. Hori guztia kazetariak testuak garaiz pasatzen dizkidatenean, noski, batzuetan azken orduan idatzitakoak "filtrorik" gabe joaten baitira inprentara.



Maketatzaileak



Aldizkarirako testuak idaztea eta argazkiak ateratzea, ordea, ez da nahikoa. Hauek zuengana txukun iristeko aldizkaria maketatu beharra dago. Argazkiak ordenadorera pasa, eskaneatu alegia, **Noaua!** eskuetan duzenok gustora irakur dezazuen testuak eta argazkiak ahalik eta hobekien uztartu, azken errepasoa eman eta... astearteetan, lana leporaino iristean atzeratzen ez badugu behintzat, aldizkaria Antza inprimategira eramaten dugu CD batean. "*Beste ale bat gehiago*" diogu gure artean, ezer arrarorik gertatzen ez bada behintzat bukatu da kazetari-argazkilari-maketatzaileen bi astetako lana.

Iritsi da **Noaua!**, bazen garaia! Asteartean goizeko bederatzietarako ekarriko zutela eta, bost ordu beranduago dator gaur. Izan ere, guk egiten dugu aldizkaria ateratzeko azken lana. Antza inprimategian CDan datorren aldizkaria paperera pasatzen dugu, alegia. Gure ordenadorean beharrezkoa dena iritsi den begiratu ondoren, aldizkaria filmatzera bidali eta aldizkaria inprimatzeko ezinbestekoak diren fotolitoak egiten ditugu. Makinatzar batean guztia papelerara pasa, grapatu eta listo, bi egunen buruan aldizkaria Usurbila eramateko prest dago. Furgoneta Mikelek edo Egoitzek hartu eta aide, abiada bizian dagokion lekura.

Inprenta



Banatzaileak



Herriko txoko guztiak ezagutzen ditugu dagoeneko, guk uzten baitugu aldizkaria zuen buzoietan. Renault 5 gorri bat ziztu bizian pasatzen edo nonbait geldituta ikusten baduzue ziur gutako norbait doala barruan, **Mertxe Gimenez edo Xabier Kamino**. Erosketarako erabiltzen den gurdia ere lagun haundia dugu ja, aldizkariak bertan sartu eta alde batera eta bestera zuen buzoietan **Noaua!** aldizkaria sartu nahian ibiltzen gara, zuek atea irekitzen diguzuenean noski! Hala ere, banaketa taldea ez dugu guk bakarrik osatzen, kanpora bidali behar diren aldizkariak posta kutxara eramateaz **Txelo Vidal eta Iker Muguruza** arduratzen baitira.

Honelaxe iristen da **Noaua!** aldizkaria herriko txoko guztietara. Hemendik aurrerakoa zuen lana da, etxean, tabernan edo dendan herriko gertakizunen berri jakiteko aukera zuen eskura jartzen baitugu hamabostean behin. **Noaua!** guztiona izan dadin nahi dugu, eta gairen bat proposatu edo idatziren bat sartu nahi baduzue **Noaua!** Kultur Elkarteak Bordaberri 3n (lehengo Zaharren Egoitza) duen egoitzara gerturatu zaitezke. Badakizue, alea ostiralean banatzen bada ere, guk asteartean eramaten dugu inprentara. 100 ale hauetan hankasartze bat baino gehiago egin dugula badakigu, baina tira, ea aurrerantzean gero eta gutxiago diren!



Amagoia Mujika: "Aldizkariaren modura, elkartea ere herriko erreferentzia garrantzitsu izatea lortu behar dugu"

Halako hitz potolorik? Kultur dinamizatzailea. Baina zein da benetan honek egiten duen lana? Garai batean Inaxio Usarralderen izena agertzen zen hitz potolo honen goialdean. Duela ia urtebete, ordea, Amagoia Mujikarena azaltzen zaigu. Ea, bada, zer kontatzen digun Amagoiak.

Dinamizatzailearen postua duela bi urte inguru sortu zen *Noaualn*. Zein beharrei erantzuteko sortu zen?

Noaual! hamaboskaria sortzean, Kultur Elkarte bat osatzea izan zen lehenengo pausua, aldizkariak euskarri legal bat behar baitzuen. Hasiera hartan elkartearen zeregin nagusia eta ia bakarra aldizkaria argitaratzea zen. Behin aldizkaria nahiko finkatuta zegoenean, **Noaualk**, Kultur Elkarte gisa, bestelako lanak egin zitzaizkela ikusi zuen eta horretarako kultur dinamizatzaile bat kontratatzea erabaki zuen.

Eta zeintzuk dira bestelako lan horiek?

Orokorrean herriko kultur mugimenduan parte hartu eta hau dinamizatzea. Hori modu askotara egin daiteke; Liburuak argitaratuz, hortxe dago Zubietako liburua, edota herriko beste taldeekin elkarlanean ekitaldiak antolatuz. Momentu honetan dagoeneko nahiko finkatuta dauden bi egitarau ditugu eskuartean. Batetik udaberrian izan zen "Plis, plas, txalo ta jolas" haurrentzako egitaraua eta bestetik, Tabernarian Elkartearekin eta Udalarekin elkarlanean aurrera daramatzagun ekitaldi ezberdinak: trikibertsoa, kontzertua, ipuin-kontalaria, ...gauzatxo batzuk egin ditugu dagoeneko.

Dinamizatzailearekin bilatzen ziren helburuak lortu al dira?

Nire ustez helburu batzuk lortu dira, baina oraindik lan asko dago egiteko. Gainera, herritar askok aldizkaria bakarrik dauka buruan eta, agian, jakin ere ez daki



bestelako lanak ere egiten ditugula. Aldizkaria herriko erreferentzia garrantzitsua den moduan, elkartea ere hala izatea lortu behar dugu.

Aldizkaria, argitalpenak, kultur ekitaldiak...nondik ateratzen du *Noaualk* horrentzat guztiarentzat dirua?

Kasu bakoitzean diru-iturria ezberdina da. Adibidez, Zubietako liburua Zubietako Herri Batzarrarekin elkarlanean eginiko zerbait da, beraz, gastuak ere banatu egin genituen. Udala eta tabernariekin antolatzen ditugunetan ere, guk antolatzaile lana egiten dugu eta dirua beraiek jartzen dute. Hala ere, gure elkarteak bost diru iturri nagusi dauzka: Udala, bazkidetza, publizitatea, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzak.

Eta nork erabakitzen du diru hori nola erabili?

Urtean behin bazkideen Batzar Orokorra izaten da. Bertan, aurreko urteko balantzea eta datorren urterako egitasmoak aurkezten dira, aurrekontu eta guzti. Gainera, Zuzendaritza Batzordea nortzuk osatuko duten erabakitzen da eta urtean zehar hartu beharreko erabakiak batzorde honek hartzen ditu. Esan beharra dago Batzar

Orokorrean bazkide oso gutxi azaltzen dela eta positiboa litzateke bazkide gehiago azaltzea, bazkidea benetan elkarte "zati" senti dadin.

Baina, honetan guztian zehazki zein da zure lana?

Aurretik aipatutako kultur-ekitaldi-etan koordinatze lana edo egiten dut. Elkarte ezberdinekin bildu, ekitaldi bat egiteko proposamena egin eta baiezkota ematen badute, ekitaldia antolatu. Dirulaguntzen kontuan, dirulaguntza horiek eskatu, hau da, Aldundiari eta Jaurlaritzari gure egitasmoak aurkeztu eta baita urteko balantzea ere, egitasmo horiek bete diren edo ez azalduz. Batzar Orokorra, Zuzendaritza Batzordea eta halako bileretan, deialdia egin eta gai zerrenda prestatzen dut.

Orain hamaika burukomin izango duzu azaroaren 4ko festatxoarekin, ezta?

Bai, batez ere azalduko den jende kopurua kalkulatzeko. Hala ere, ilusio berezia egiten dit festa honek, hainbestetan telefonoz hitz egin dudana kronistekin lasai egoteko aukera izango dut, adibidez. Beti lanerako deitzen diogu jendeari, hau edo bestea eskatzeko. Pozgarria da behingoz festarako deitzea ere.



AITZAGA

HERRIKO

TABERNA

*Pintxoak, bokatak, plater
konbinatuak,... prest
ditugu Noaua egunerako!*

*Euskal presoak
etxera!*

**BORDATXO
EDARITEGIA**




**PINTXO BEREZIAK ETA
BOKATA HAUNDIAK
NOAUA EGUNEANI**

ZORIONAK!

Aritzeta, 2 Telf: 943 37 10 42



**TXIMINIA
ALTZARIAK**



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

**Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia**

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Elexpe

Estetika zentroa
Tatuaiak
Betileen trukaketa
eta permanentea
Estetika
Solariuma



Monalurra 2
20170 USURBIL
☎ 943 37 04 62



Zorionak Noaua!

MARGOAK- PAPERAK

FERNANDO PINTURAK

ENPAPELAKETAK ETA
PINTURAK OROKORREAN



Kale Nagusia, 1
Tlf: 36 60 19- 36 34 60



Zubiaurrenea, 10

Tel: 943 37 18 07 - Faxa: 943 37 63 41



ESTRELLA ASEGURUAK

Markel Olaizola
Aseguru Agentea/ Zbk.
200009

**Mota guztietako aseguruak
zure zerbitzurako**

**BGA E (Borondatezko
Gizarte Aurreikuspen
Erskundea)**

**Zure (Gure) etorkizun
ekonomikoa ziurtatuko
digu produktuak da
oraingoa sartu duguna**

Gurean badira egi

Halaxe da. Gure etxe haundi honetan bada beti zer egitekorik, armairuak txukundu, bazkaria egin, loreak ureztatu,...eta, zorionez, bada nork egina ere. Hor aritzen da jende mordoan lanean ixil-ixil, xume-xume eta izkutuan, inork gutxi jakin gabe. Iritsi da, ba, hauen berri emateko garaia. Jakin dezala herriak nork mantentzen duen txukun gure egoitza, nork apaintzen duen gure aldizkaria, nork eramaten dituen etxeko kontuak, nork antolatzen dituen gure armairuak, nork ematen digun jaten gure bilera luze horien ostean...

Maketatzaileak

Gure aldizkariak, hasi zenetik, jantzi gero eta dotoreagoak izan ditu. Hasiera hartan **Susana Martinek** lan txukuna egin zuen, berak erabaki baitzuen gure aldizkariaren itxura. Gainera, Susanari begira orduak eta orduak emanez guk ere asko ikasi genuen. Ondoren, esku askotatik pasa da gure aldizkaria. Artista ugari izan dugu, egutegiak, urtekariko azala, kartelak, postalak... hamaika lan eman diegu herriko disenatzaileei: **Olatz Goenaga, Mertxe Gonzalez, Zaloa Arnaiz, Ibon Beristain, Aitziber Elortza...**



Mantenimendua

Ezagutzen al duzue gure egoitza berria? Hala ez bada merezi du ezagutzea. Askotan, gehiegitan agian, ez dugu oso txukun izaten, bateko paperak eta besteko zigarrokinak direla medio. Hala eta guztiz ere, ezagutzen duen orok egoitza ederra dela pentsatzen du, hala baita. Lekua soberan eta baita argitasuna ere. Honetan guztian, herriko "txapuzero" askok badu zeresanik. Egoitza zaharretik berrira aldatu ginenean, bazen lanik: dokumentazio guztia ekarri, aprobeztatzeko moduan zeuden altzariak lekuz aldatu, lokal berria pintatu...badakizue, etxez aldatzeak berarekin dakartzan lan neketsu horiek guztiak. Orduan esku asko izan genituen laguntzeko, izenen zerrenda ematea luze joan daiteke, baina izan zirenak badakite benetan eskertzen diegula egin zuten lana.

Orain, berriz, **Iñaki Salsamendi** arduratzen da lokala txukun mantentzeaz: "Iñaki, eta hemen apaltxo bat jarriko bagenu?" eta Iñaki, mailua eta iltzeak eskuan, beti lanerako prest. Gainera, gure egoitzako landareak "goxatzeaz" ere bera arduratzen da.


Honez gain, herrian eskuzabal asko dago. aldirikaritegi ederra, mahai dotorea, ordenagailu bat...ez gaude kexatzeko moduan.

Dokumentazioa eta argazki artxiboa

Gauza garrantzitsua da dokumentazioa eta artxiboa txukun-txukun mantentzea, kazetariei, daturen bat bilatzeko orduan, oso lagungarri baitzaie informazio guztia txukun sailkatuta izatea. Alor honetan lan garrantzitsua egin dute **Garikoitz Udabe, Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalezek**. Eta nola ez? ez ditugu ahaztu nahi lan paregabea egin duten bi artista: **Leire Unanue eta Leire Mujika**. Ikusi besterik ez dago gure argazki artxiboa!

Zure kirol arropa eta material guztia!

Zorionak!



Kale Nagusia, 10 Telf; 943 36 60 50

PORTULARRUME ITURGINDEGIA

Bainuko altzarietan aukera zabala!

Kale Nagusia, 2-2-2D

Telf; Denda 943 36 46 37
Etxea 943 36 52 99

teko hamaika lan!

Bazkidetza

Gure familia hau haundituz joan da sortu ginenetik. Gaur egun bostehun bazkidetik gora ditu **Noaua!** Kultur Elkarteak eta hau ez da kasualitate hutsa izan. Kopuru honen atzean jende askoren lana dago: 96ko Sagardo Egunean, oraindik inork gutxik proiektu honetan sinesten zuenean, bazkideak "harrapatzen" aritu zen taldetxoak, ondoren **Arantxa Usarralde**, **Aintzane Aizpurua** orain eta ahoz aho bazkideak erakarri dituen jende hori guztia.

Administrazioa

Elkarteko diru-kontuak egunean eramatea oso gauza garrantzitsua da, dirurik gabe ezer gutxi egin baitaiteke. Haseratik **Aitor Pikabea** izan dugu administrari lanetan eta duela gutxi **Aintzane Aizpurua** hartu zuen lekukoa. Hala ere, berandu baino lehen beste norbaiten izena emango dizuguelakoan gaude. Hala bedi!

Bitartean, milesker gure etxeko diruzainei, ez da lan erraza eta!

Informatika teknikariak

Gure burukomin latzenak sendatzen dituztenak ere ez ditugu ahaztu nahi. Bateko sarean jarri behar direla ordenagailuak, besteko traste berriarekin ezin asmatu gabiltzala, **Oskar Angulo**, **Pili Lizaso** eta **Xabier Arregi** beti izan dira laguntzeko prest. Euren bizitza lanpetuetan beti izan dute txokorik guri laguntzeko eta, bide batez, zedozer erakusteko, esan beharra baitago traste berri hauekin beti ez garela oso ondo moldatzen. Eta ezin ahaztu Karlos Aizpurua ere, bera izan baitzen gure web orria internet izeneko sare amaitezin horretan zabaldu zuena.

Zuzendaritza Batzordea

Hauxe da Noauaren aita, edo ama, bakoitzak nahiago duen bezala. Hilean behin bildu eta elkarteko erabaki garrantzitsuenak batzorde honen esku izaten dira. Berak erabakitzen du gure elkarteak zein norabide jarraitu behar duen, zein egitasmo eutsi behar dion. Momentuan elkarteak dituen gabezi edo hutsuneak konpontzeko bideak ere batzorde honetan erabakitzen dira. Haseratik hona batzorde honek kide ezberdinak izan ditu, batzuk utzi eta beste batzuk lekukoa hartu baitute. Momentu honetan honako hauek osatzen dute Zuzendaritza Batzordea: **Andoni Sagarna (lehendakaria)**, **Amagoia Mujika**, **Idoia Agirre**, **Pili Gimeno**, **Iñaki Salsamendi**, **Josu Aranberri**, **Saioa Fernandez**, **Olatz Altuna**, **Garikoitz Udabe**, **Agurtzane Solaberrieta**, **Aintzane Aizpurua**, **Jakoba Errekondo** eta **Inaxio Usarralde**.



Guztioi, milesker

Jakin badakigu garen guztiak ez gaudela orrialde Jhauetan. Gainera, izen guztiak jartzen hasita ere, ziur baten bat ahaztuko zitzaigula. Milesker gure bilera luzeak bazkari ederrekin goxatu dituzuenei, milesker gure egoitzara hau edo beste kontatzera etorri zaretenoi, milesker kajoiaren txoko horretan gordeta zenituzten argazkiak ekarri dizkiguzuenei,...



**SOLARVIM
DEPILAZIOA**

ZORIONAK!

**Etorri aurretik eska
ezazu ordua**

ILCAPAINDEGIA

Kale Nagusia, 2 - Telf; 943 37 28 44

**TRAGOXKA
JATETXEA**

X Bazkariak

X Afariak

ZORIONAK!

**Santuenea, 23
Telf; 943 36 27 34**

Txiriboga Taberna



Noaia Egunean ere
presoak etxera!

*Pintxoak, bokatak
plater konbinatuak...*

Irazu kalea, 3 -Telf: 943 37 00 13



USURBILGO UDAL KIROL
PATRONATUAK beste ehun aletan
horrela jarraitzea opa dizue!



TEL.: 943 37 24 98

FAX: 943 37 14 93



**EAJ
PNV**

**Guk BAI jarraitzen
dugu gure bidea!**



URDAIRA

SAGARDOTEGIA

Noaua egunean dastatu
herriko sagardoa

Ondo ibili!

Aginaga, Telf; 943 37 26 91

IRVIN SAGARDOTEGIA



✓ Txox garaian eguerditan
irekita eta igandetan itxita

Noaua egunean herriko
sagardoa dastagai

Ondo ibili!

Zubieta

Telf; 943 36 12 29



Noaua egunean
herriko
sagardoa
dastagai

Zorionak Noaua!



x Urte guztian zehar
zabalik

x Igande gauetan eta



TXOKOALDE

Iñaki Labaka

Noa! aldizkarian Txokoaldeko kronista izateko proposamena egin zidatenean zalantzan ibili nintzen. Oso konbentzituta ez nengoen, baina norbaiten beharra zegoenez hasia erabaki nuen. Lehenengo aleetan nire burua **Noa!** agertzeak lotsa ez, baina "zera" bat ematen zidan. Orain, berriz, ez zait horrelakorik gertatzen.

Zenbait garaitan Txokoaldeko kronika idaztea ez da lan samurra izaten. Hasieran zer jarri izaten nuen, baina gero aurrez esandakoa ez errepikatzeko nahikoa ere bai. Txokoalden ez da gertakizun askorik izaten, eta horrez gain berri batzuk jarri edo ez zalantzak izaten ditut baten bat haserretuko den beldurrez. Askotan nire buruari zera galdetu izan diot: "orain zer jarri behar dut?". Hala ere,

arazo hau auzo guztietako kronistei gertatzen zaigula uste dut.

Lehenengo zer jarri pentsatu eta gaia erabaki ondoren nahikoa erraz idazten dut. Gero, ordea, bueltak ematen dizkiot ea ondo idatzi dudan ikusteko, hiztegian begiratu...

Orain lehen baino lasaiago ibiltzen naiz. Izan ere, hasiera batean ni nintzen Txokoaldeko kronista bakarra eta konturatzeko berriz kronika idatzi beharra izaten nuen. Gero, ordea beste hiru kronista berri sartu ziren eta azken bi urte hauetan bi hilabetetik behin idazten dut. Hala ere nahi baino



azkarrago pasatzen dira, bai, bi hilabete horiek. "Denbora baterako bakea badut" pentsatzen dut nirekiko, baina, keba, laster pasatzen dira bi hilabeteak.

Hala ere, gustora nabil lan honetan, eta jendeak nik jarritakoa irakurtzen duela uste dut. Auzoan bai behintzat, batzuetan niri ez bada ingurukoren bati kronikan azaldutako zerbaiti buruz zerbait komentatzen baitigute.

AGINAGA

Maria Angeles Arruti

Berria naiz lanbide honetan, baina gustora nabil, orain artean bai behintzat. Idazten ez naiz oso laioa eta formula berezi bat aurkitu dugu hori konpontzeko: nik ahoz kontatzen dizkiet esan nahi ditudanak eta beraiek idazten dute. Eta egia esan oso ondo josten ditu, Amagoiak uste dut, nik esandakoak. Modu honetara gainera kronika egiteak ez dit lan askorik ematen.

Lehen izaro Aizpuruaren laguntzailea izaten nintzen. Berak gairik ez zuenean niri deitu eta laister antolatzen genituen azaldu beharrekoak. Izan ere, Aginaga aldean bada zer kontatua. Kritika gehiegi egiten ditudala edo beti zerbait eskatzen ari naizela pentsatuko dute batzuk, baina denetik jartzen dudala iruditzen zait; norbait zoriondu egin behar denean

zoriondu egiten dut eta zerbait ondo ez dagoela esan behar denean hori esatea gustatzen zait.

Orain laguntzaile ugari ditut. "*Bide hau honela zegon, hua gaizki zegon, hurrengoan beste hau esan ezazu...*" honelakoak esaten dizkidan auzoak ditut. Egunero gure ibilalditxoak egitera joaten garen andre koadrilakoek ere ez dute aukerarik galtzen, zerbait dutenean hor dute Mari Angeles **Noa!**koa.

Aginagan lau kronista garenez bakoitzak bereak kontatzen ditu. Ni, behintzat, Intxaurreta aldean, aparteko bailaran gelditzen naiz,



baina bueno, kontatzeko zerbait izaten dut beti, biztanle dexente ez ote gareneko susmoa hartzen ere hacia naiz dagoeneko. Bestela, kaxkoko nondik norakoak jakiten ditut handik eta hemendik.

Bestalde, Noa! aldizkaria jende dexentek irakurtzen duela uste dut, hasieran baino gehiago esango nuke nik. Nik zerbait idazten dudanean, behintzat, gehienetan zerbait esaten didate: oso ondo zegon jarri dezuna edo hi, zer jarri den...

N•1

ILEA PADAINDEGIA


MIXTOA

Beste 100
baietz!

**Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura**

Aritzeta 2- 2, 1.A Telf: 943 36 19 51

PATRI JATETXEA



**Jarraitu horrela
noauakideok!**

**Egunero bazkariak eta
afariak**

Kale Nagusia, 6 Telf: 943 36 27 25




Kale Nagusia, 25 Telf: 943 36 12 20

Aizpurua



*Noaua egunean ere
zure mahaia ondo
hornituko dugu!*

Telesforo Ardoak



ZORIONAK!

Ehungarrene

Ieup! Bazan garaya. Ehun aletan eziate utzi, baño azkenian lortuet. Azkenian utzidiate hitzeiten. Behinguatik, periodisten hatzaparretatik kanpo, neonen kaxa hitzein dezaket zuekin. Ondo al gea? Ni Noa! naiz. Bueno, pentsatset ezautuko nazuela. Enaiz alperrik ehun aldiz allatu zuenea. Eta gaur, nere historia, eta jayonintzanekua, eta ondorengua kontatzeko utzi dizkiate orri hauek. Gauza asko kontatu nahi dizkizuet, beaz, lenbailen hastiare txarra ez. Eta, nundik hasi bihar det? Onena hasieratik hastia izango!

Zuetako askok jakingo eztezu-en zerbait kontatu bihar dizuet: Nike, baitut atta eta ama. Hoi bai, zuek bakoitzetik bana dittu-zuen bezela, nik geyo. Eta, ha-yek kontatu izan diatenez, ta-berna zulo batian ezautu omen zian, eta zerbeza eta kalimotxo artian pentsatu omen zuen ni usurbilla ekartzia. Pentsatu eta iñ. Eta nola iñ gañea.

Igual pentsatukozue, klonaziyo eta jenetikako inbento hoik denak gauza berriyak diala ezta? Ba, ezta ba oaingoxekua. Bost

urte atzea iñezkeo, Usurbilla je-netikako manipulaziya allatuba zeola kontuatuko giñake. Neoni ejemplu earra: estreña, zortzi orri letrez beteta izango nittula pentsatu omen zuen. Urtian sei bat aldiz ateatziakin naikua omen nun. Usurbillen naiko kontu eongo ez ote zan bildurrez alajaina! Geo ordia, bayetz, ze kontatuba izango zala, eta igual hilabetian behin ateatzeko añakua banitzala. Eta kontubak hortantxe geatu bihartzula ematezunian, zast! Ezetz. Hamabostian behin ateatzen ezpanitzan, ez nula merezi mundubonta etortzia eta halakoxia izatia deziditu zuen!

Kilotane zenbateko pixua izan-go nun seittun pentsatu omen zuen: momentun, 24kilokua izatia. Halare, kontuatuko ziñaten bezela, gizendure earki gizendu naiz bost urtiautan, baina tira, nik bentaja bat beintzat baet: zenbat eta kilo geyo izan, ordun da osasuntsugo naola. Ezta zure kasuba ezta? Ze ingoyou ba. Bentajan bat izan biharkou herriko rebista batek!

Handik aurea etorri omen zian ordia komerik. Aurrena, ze itxura

izan biar nun pentsatu biar. Eta, nola ez, erlauntza batian erre-giña bat baño geyo dagonian gertatzean bezela, ezin dea-kuerdo jarri. Tamañan, nobenta sesenta nobenta izan biar ote nun, azalan koloriane batzuk txuri beltzan aldekuak, bestiak kolore geixio biarko nittula. Hoi kanpotik noski. Barrukaldian bes-te hainbeste: nere fotografik gutxinez hainbesteñokuak izan biartzuela, publizidiak azpin jun biartzula, baño separatuba... azkenian behintzat, bastante iñomentzuen deakuerdo jartzia-kin. Bakizue, denak deakuerdo jartziare ezta errexa izaten.

Etzian ordia hor istilluk bukatu: gauza importantia falta zitzaian. Izena. Eta ideak, herriyai eska-tzia izango zala onena pentsatu omentzuen: lareundik gora izen jaso omen zittuzten. Bat aukera-tu biar ordia. Eta hortakore, afa-ya inbiar (beiratu bestela foto-grafiyai). Hoitamar launetik gora juntatu omentzian sozidadian. Eta behin barrenak ondo asen-tatuta, demokratikoki botaziya iñ omen zuen. Lista hartan zeuden izen batzuk goatziak oaindik ollo ipurdik jartzeizkit. Azkenian ordia, Noa!k eaman omen zittun botu geyenak, eta harekinxe geatu naiz.

Ayuntamentuak siaska eman omentzian: korreos zaneakua. Ordun bai hasi zala benetako lana. Eunerokua alegiya: batzuk temak jartzen, bestiak eskribitzen, publizidadea saldaz mordoska bat, eta bazkide billa beste hainbeste.... kontubak kontu, iritxi zan euna: 96ko juniyoko 28. eunian atea nitzan kalea. "...san juanak joan dira, santixabelak badatoz" izan ometzian nere aurreneko hitzak.

Esan biarrik ezto, hitzeitene seittun hasi nintzala. Kontubon-



Aldizkariaren izena bazkari baten ondoren aukeratua izan zen

an aidanez!

tan ordia, kontuz ibili biarrian no, ze, euskeran meikuk ezta alpe-rik ibili botika eman eta botika eman. Jayo bezin pronto proibi-tu ziaten hola hitzeitia. Alegiya, eukara batuz deittutako hortan aitzia zala xuxenena. Hoi bai, gauza batzuk ez errespetatzeko permisua ere emantziaten: haundia esaten uzten ziatela, pilotalekuaren partez frontoi erabiltzeko, eta halakuak. Eta iruditzen bazaizue, euskeran meikuk haserretu aurretik, euskera batuaz kontatuko dizkizuet hemendik aurrerakoak.


Egia aitortzea nahi baduzue, jaio nintzen egunetik, ez naiz inoiz bakarrik sentitu. Beti izan dut esku bat botatzeko pronto zegoen jendea ondoan. Ni sor-tzeko aurretik egin behar izan zi-ren lan guztiei beldurrik izan ez zieten haietatik hasi, eta bost ur-te hauetan ondoan, zeregin ez-berdinetan izan ditudan guztie-taraino: hau idatzi beharra egon, eta egiteko prest zegoela esanez etorri direnak. Honi buruz iritzia eman nahi zutenak eta ni-re orrialdetan lekuren bat egin-go nien eskatuz etorri direnak. Aspaldiko argazki hauek, nahi izatera erabiltzeko esanez etorri direnak. Etxeko txiki edo zaharra zoriontzeko ni bitartekari izatea aukeratu duen jende mordoak. Berarekin hitzegin nahi nuela esan eta oztoporik jarri ez dida-tenak. Auzoan gertatutakoa kon-tatu didatenak. Nire hobebeha-rrer, gaizki esandakoak zuzen-tzera etorri direnak.... eta beste asko eta asko.

Esan didatenez, hasiera hartan jende askok ez zuen niregan sinesten. Gutxienez, nire 100 ale aterako zirela esan izan baliote askori, hauek barre algaraka erantzungo zuketena "hi erotuta hago". Baina ezkorrak baino

gehiago izan omen ziren aldekoak. Eta batez ere, nire merezimendu eta esker beroena eman nahi diet, bost urte hauetan bazkide egin diren guztiei. Niregan sinestu dutelako, gaur, 100. alean, hizketan ari natzaizue.

Seguru izan ordea, oraindik beste ehun gehiago aterako direla. Hasi besterik ez naiz egin. Gaztetze- ar dagoen ume txiki bat besterik ez naiz. Pentsa, urtariletik aurrera arropa berriak jantzita azaltzekotan naiz! Gainera, hara, eskusiban gauza bat kontatu behar dizuet: ba al da-kizue nire jostunak zer ari diren diseinatzen? Larrosa koloreko traje bat. Ez al nintzateke polita egongo? Eta ze gozatua hartu-ko zenuketena zuek hauek ira-kurtzen? Argazki eta guzti noski!

Horiek ordea aurreragoko kon-tuak dira. Eta hori da hain zuzen egin behar duguna. Aurrera begiratu. Behin ehungarrena pasata, urrengoan eta ondoren-goan zer kontatu, eta nola era-baki beharra daukat. Eta bide batez, datozen urteei nola aurre egin pentsatzea ere ez legoke batere gaizki. Igual astero zuenean izango naizeneko eguna ere ez dago hain urrun?



Edo, usurbilen langabezia dauden nire lehengusu irrati eta telebista ere jardunean hasten diren eguna uste baino gertu-ago igual dago? Batek daki.

Nik behintzat, zuenera iristen jarraitu nahi nuke. Eta orain arte bezala, lagun askorekin, taber-nan, sukaldean, komunean edo kalean, besapean, maletan edo patrikan, eguteraan eta itzalean, atzera eta aurrera ibiltzen jarrai-tu nahi nuke. Eta izan seguru, beste ehun aletan behintzat hori hala izango dela. Eta berrehu-netan, hirurehunetan, bosteunetan....

Kontrako desfiorik inork egin nahi?

Ni neu neoni

A. BRUÑO E HIJOS S. L.
ANGULAK ETA ITSASKIAK



Menu ezberdinetako aurrekontuak
egiten ditugu

Egin ezazu zure eskaera telefonoz:

943 37 27 88 USURBIL

Legarde Kaleko Zumartegi

- | | |
|----------------|--------------|
| - Angulak | - Txangurroa |
| - Langostinoak | - Zentoiloa |
| - Langostak | - Mixera |
| - Nekorak | - Almejak |
| - Lanpernak | - ... |

7 0 0 0 p z t a .

MIKEL
ARRAINDEGIA



Zorionak
Noaua!

Gaztañazpi, 1

Telf; 943 36 63 56



Urtinea
Larategia



Loreak, lore landareak,
erramuak, koroak,
zentruak,... hemen
aurkituko dituzu!

Egun osoan zehar zabalik!

San Esteban auzoa Telf: 943 36 22 55

Segi horrela Noaua!



Ferreteria
JUANTXO
Burdindegia

Kale Naguasia, 10 - Telf. 943 37 00 08
20170 USURBIL

ANTXETA



Zorionak!



Eguzkitza, 4
Telf; 943 37 03 44

TXOTXETIK



**AGINAGA
SAGARDOTEGIA**

► *Urte guztian egunero
irekita astelehenetan
ezik*

► *Etxeko sagardoa
dastatzeko aukera!*



Telf: 943 35 67 10- 37 06 68
Aginaga

Txanpaina eta gero...

Noa! aldizkariaren lehenengo alea bukatzerako gauerdia zen. Optiko batean grabatu genuen eta hurrengo goizean inprimategira eramatea besterik ez zen falta. Hori ospatzeko Aitzaga tabernara joan eta txanpainarekin topa egin genuen lana amaitzen gelditu ginenok. Hurrengo eguna, ordea, ez zen nolanahikoa izan. Inprimategitik deitu ziguten argazkiak gaizki eskaneatuta zeudenez berriz eskaneatu behar genituela esateko. Guk, ordea, eskaneatzen jakin ez eta ordu dexente pasa genituen orain ordubetea egiten dugun lana egiteko **Xabier Eizagirrek** programa horren azalpenak irakurtzen zituen bitartean.



Argazkiak atera ezinean

Ez zen erraza izan lehenengo alerako inkesta egitea. Jende askok ez zekien *Noa! aldizkaria* ateratzekotan ginela eta Juan Luis Izeta argazkia ateratzen hasten zenean ihes ere egin ziguten batzuk. Asteazkenetan Udarregi zaharraren atzeko aparkalekuan egiten zen azokan hor ibili ginen jendearen atzetik zerbait egin nahian, baina jendearen iritziak grabatu eta argazkiak ateratzen denbora dexente pasa genuen. 100 ale hauetan gauza bat argi gelditu da: ez da erraza Usurbilen

Noagoa, Noagua...

Ez dakigu aldizkariaren izenarekin asmatu genuen ala ez, baina azken bost urteetan Usurbilen Noa! hitza askotan erabiltzen dela konturatu gara. Ez, ordea hemendik kanpo. Gure aldizkariaren edo elkartearen izena ematerakoan oso zaila egiten zaie hitz hori ondo ahozkatu edo idaztea. Noagoa batzuetan, Nuoaga besteetan nahikoa lan izaten dugu hizki hizki gure aldizkariaren izena nola den esateko.

Kontrola!!

Aldizkariaren lehen alea akaleratu genuenetik erreportaiak ugarri egin ditugu. 35. alean, adibidez, Usurbilen garai hartan Polizia Nazionalek nahiz Goardia Zibilak herrian egindako kontrolen berri eman genuen. Baina nola lortu argazkiak? Kontrolen bati argazkiak ateratzeko erabakia hartu genuen, baina ezinezkoa egin zitzaigun hauek ateratzea. "Eta orain zer?" Egin egunkarira joan eta kontrolen argazki batzuekin Usurbila zetorrela Polizia Nazionalearen kontrol bat pasa behar izan zuen Hernaniko bidean. Eskerrak ez zutela gelditu, bestela...

Lagun berezia

Noa!ko lehenengo egoitza ez zen nolanahikoa. Argitasun gutxikoa, goizean eguraldi onarekin sartu eta txarrerako aldaketa ematen bazuen gu ez ginen konturatzen. Leihotetan zeuden txirrikietatik ere ederki sartzen zen haize hotza. Gu askotan kexatzen ginen, baina bazen ezkutuan goxo-goxo egoten zen xagutxo bat. Gu lanean ari ginen bitartean han ibiltzen zen alde batera eta bestera.

Josetxo

Agurtzaneri ere behin ederra agertatu zitzaion. San Juanetako gehigarria egiten ari ginen eta gehigarrietan egin ohi dugun bezala, auzotako publizitatea lortzen saiatzen gara. Ikutza aroztégiko publizitatea lortu nahi, eta hara zein agertzen zaien telefonoaren bestaldean; gure Josetxo laguna. Berarekin telefonoz hamar minutu inguru hitz egin ondoren, konturatu zen Josetxo zela eta ez Joxe Mari Ikutza. Eskerrak, bestela Ikutza aroztégia orri oso bat koloretan hartuko luke, izan ere, Josetxok publizitate haundiena nahi baitzuen eta marrazki askorekin.

XABIER EDARITEGIA

Etor zaitez eta
dasta itzazu
Goierriko
produktuak:

-Idiazabal gazta
-Beasaingo
odolkiak



Kontseju zarra, 13 Telf: 943 36 04 66

Araeta

JATETXEA

Arbitza bidea • 20160 ZUBIETA
Tel.: 943 362 049 - 943 366 642 • Fax: 943 366 073



Enpresako bazkarietarako
toki paregabea.
Zatoz gure menu
bereziak ezagutzera

Okindegia
LABE-GOXO
Gozotegia



L A B E - G O X O

Okindegia - gozotegia

Zorionak Noaia!



Kale Nagusia, 2
Telf; 943 37 33 48 - 37 09 13

ABURRUZA, JOXE / ABURUZA, CELESTINO / AGINAGA SAGARDOLEGIA S.L. / AGIRRE, ANE / AGIRRE, INAZIO / AGIRRE, JESUS / AGIRRE, JOKIN
 AGIRRE, IDOIA AGIRRE, JOSE JAVIER / AGIRRE, EDORTA / AGIRRESAROBÉ, MARIA JOSEFA / AGIRRESAROBÉ MAITE / AGIRRESAROBÉ, INAKI
 AGIRRETXE, EDURNE / AGIRREZABAL, AITOR / AGORRETA, GARIKOITZ / AGUDO, PAKO / AIERBE, GORKA / AIERZA, M. KARMEN / AISA, NEKANE
 AITZAGA KULTUR ELKARTEA AIZPEOLA, ANDONI AIZPURUA, JUAN CARLOS / AIZPURUA, AINTZANE / AIZPURUA, FELIX / AIZPURUA, LURDES
 AIZPURUA, ANA ISABEL / AIZPURUA, EDURNE / AIZPURUA, IDOIA / AIZPURUA, INAKI / AIZPURUA, MIRENA / AIZPURUA, MERTXE
 ALDALUR, VALENTIN / ALDASORO, JUAN / ALDUNTZIN, JOSE MARI / ALDUNTZIN, NEKANE / ALDUNTZIN, JOSE MARI / ALKORTA, MIKEL
 ALKORTA, PEDRO M. / ALKORTA, PAKO / ALKORTA, JOXEPI / ALKORTA, M. PILAR / ALKORTA, AITOR / ALKORTA, ARANTXA / ALKORTA, JUAKINA
 ALMANDOZ, INAKI / ALMANDOZ, IMANOL / ALTUNA, JOSE ANTONIO / ALTUNA, KOXKI / ALTUNA, M. ANGELES / ALTUNA, ANA
 ALTUNA, OLATZ / ALZAGA, M. MILAGROS / AIZUGARAI, IBON / AMAS, ROSARIO / AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA / ANDATZA ELKARTEA
 ANDATZPE ELKARTEA / ANGULO, OSKAR / ANORGA, M. MILAGROS / ARANALDE, LUIS / ARANBERRI, AITZIBER / ARANBERRI, JOSU
 ARANBURU, ARANTZA / ARANBURU, GARBINE / ARANBURU, ARANTZAZU / ARANTZAZISTROKE, OLATZ / ARANTZAZISTROKI, IBON
 ARANZADI, ARANTXA / ARIZTI, AGUSTINA / ARNAIZ, ZALOA / AROZENA, JAIME / ARRASOIA, IKER / ARRASOIA, JOSE LUIS / ARREGI, EDURNE
 ARREGI, XABIER / ARREGI, JOSE MARI / ARRIAGA, MIKEL / ARRIAGA, JON / ARRIOLA, FERNANDO / ARRIZABALAGA, JOSEBA
 ARROJERIA, KANDIDO / ARRONA, INIGO / ARRONA, JOSE RAMON / ARROSPIDE, JOSE MARI / ARROSPIDE, JUAN JOSE / ARRUTI, JESUSA
 ARRUTI, INAXIO / ARRUTI, AITOR / ARRUTI, INAZIA / ARRUTI, ANTONIO / ARRUTI, ARANTXA / ARRUTI, INAKI / ARRUTI, JOSU / ARRUTI, MIREN
 ARRUTI, ISIDRO / ARRUTI, JAVIER / ARRUTI, M. ANGELES / ARRUTI, JUAN M. / ARTOLA, MIKEL / ARTOLA, JOSE LUIS / ARZALLUS, MERTXE
 ARZALLUS, JOSE MARI / ASTIASUINZARRA, INAKI / ASTIAZARAN, JUAN LUIS / ASTIGARRAGA, M. JESUS / ASTIGARRAGA, ANASTASIO
 ATXEGA, GURUTZE / AZKONBIETA, PATXI / AZKONBIETA ETXEBERRIA, JOSE JUAN / AZKUNE LIZASO, LURDES / AZPIROZ, AINHOA
 AZPIROZ, INIGO / AZPIROZ, PATXI JAKOBA / AZURMENDI, J. FRANCISCO / BALDA, ALEX / BALERDI, BAUTISTA / BARREDA, ROSARIO
 BEGIRISTAIN, M. DOLORES / BEGIRISTAIN, JOXE MIEL / BELDARRAIN, M. DOLORES / BELLABAZO, ARANTXA / BENGOTXEA, AMAIA
 BENGOTXEA, FELIX / BENGOTXEA, JOAKIN / BENGOTXEA, M. JESUS / BENGOTXEA, MIKEL / BENGOTXEA, LUIS MARI / BENGOTXEA, MIKEL
 BENGOTXEA, ANTONI / BENGOTXEA, ISIDRO / BENGOTXEA, JOSE MARI / BENGOTXEA, JUAN MARI / BENGOTXEA, JULIAN
 BEREZIARTUA, M. JOSE / BEREZIARTUA, JOSE MANUEL / BERISTAIN, IBON / BERRIOZABAL, JOSEBA / BORDA, IBON / BORDA, JOXE MANUEL
 BOTA PUNTUBA BERTSO ESKOLA / BRUÑO, ALBARO / BRUÑO, BLANKA / CARBAYEDA, JON / CID, MAITE / DEL PICO, M. JESUS / DIAZ, JAVIER
 DOMINGUEZ, PAULINO / DORRONSORO, ITZIAR / EGILETA, PREXEN / EGIZABAL, EMILIO / EIZAGIRRE, J. MARI / EIZAGIRRE A. ISABEL / EIZAGIRRE, INAKI
 EIZAGIRRE, JOKIN / EIZAGIRRE, XABIER / EIZAGIRRE, MIREN NEKANE / ELEXPE, J. LUIS / ELEXPE, KONTXI / ELEXPE, MARIA JESUS / ELEXPE, MIKEL
 ELIZEGI, MARIA ROSARIO / ELIZONDO, MARTINA / ELKARRI / ENCINAS, IDOIA / ERAUSKIN, FELIPE / ERRASTI, MARIA LUZ / ERRASTI, MIKEL
 ERRASTI, MAITERE / ERRAZKIN, JOSE ANTONIO / ERRAZKIN, INAKI / ERREKONDO, JEXUX MARI / ERREKONDO, INAKI / ERREKONDO, JAKOBA
 ERREKONDO, XABIER MIKEL / ERRO, SAIOA / ESKUDERO, EDURNE / ESNAOLA, AINGERU / USURBILGO JUDO K.E. / ETUMETA AEK EUSKALTEGIA
 ETXABE, J. BAUTISTA / ETXEBERRIA, M. ANTONIO / E HE / EZKER BATUA / FERNANDEZ, SAIOA / FURUNDARENA, BITTORIANO
 FURUNDARENA, JOXE JABIER / FURUNDARENA, J. RAMON / GALARRAGA, MANUEL / GALARRAGA, MILAGROS / GALARRAGA, GURUTZE
 GALBETE, SANTI / GALLEGO, JON / GARCIA DE EULATE, INIGO / GARDOKI, CIRILA / GARMENDIA, M. LUISA / GIMENO, PILI / GOENAGA, JOSE
 GOENAGA, MIKEL AINGERU / GOENAGA, JASONE / GOENAGA, OLATZ / GOENAGA, JOSE KRIZ / GOIA, ANARTZ / GOLDARAZENA, M. JESUS
 GOMEZ, JUANJO / GONZALEZ, NAGORE / GORRITI, M. PILAR / GORRITI, AGUSTIN / GORRITI, BEATRIZ / GUERRA, M. DE LA SOLEDAD
 GURASO ESKOLA / HARREGUY, HARITZ / HARTE, HERRI / HUEGUN, INIGO / HUIZI, ENRIKE / IBARGOEN, JOSE RAMON / IBARGOEN, LUIS
 IKUTZA, JOSE MANUEL / ILLARRAMENDI, JORDAN / ILLARRAMENDI, ANA ISABEL / ILLARRAMENDI, SANTI / ILLARRAMENDI, ITZIAR / INGEMAR S.A.
 IPARRAGIRRE, PATXI / IPARRAGIRRE, USOA / IPARRAGIRRE, JOSE LUIS / IPARRAGIRRE, RAMON / IRAOLA, ANTONIO / IRASTORZA, JOSE MIGUEL
 IRASTORZA, JOSE MARIA / IRASTORZA, LURDES / IRASUEGI, BEATRIZ / IRAZUSTA, JUAN JOSE / IRAZUSTA, AITOR / IRAZUSTA, IRIAR, JEXUX
 IRAZUSTA, JOXE MARI / IRIAR, ARANTZA / IRIAR, JUANJO / IRIAR, KARMELE / IRIAR, MAIXUX / IRIAR, SANTI / IRIAR, XABIER
 IRIAR, IRATI / IRIAR, BEGOÑA / IRIAR, JOSUNE / IRIONDO, INAXIO / IURRERAGUIENA, M. PILAR / ITURRALDE, TOMAS / ITURRALDE, ANGEL
 ITURRALDE, PATXI / ITURRALDE, ISIDRO / IURRAMENDI, INAKI / IZAGIRRE, M. JESUS / IZAGIRRE, J. MARIA / IZAGIRRE, ITZIAR / IZAGIRRE, MIGUEL
 IZAGIRRE, NATI / IZETA, RIKARDO / IZETA, IMANOL / IZETA, JOSE RAMON / JAUREGI, HARITZ / JAUREGI, SOR MERTXE / JAUREGIBERRI, JUAN M.
 JIMENEZ, M. ISABEL / JIMENEZ, MERTXE / KAMINO, EUKENE / KAMINO, XABIER / KAMINO, RAMON / KAMINO, XELE / KAMINO, LURDES
 KAMINO, ALAITZ / KASTRESANA, ASUNCION / KORTA, ISABEL / KORTA, LOLI / LABAIEN, JOXEAN / LABAKA, INAKI / LABAKA, KORO
 LABAKA, ANA / LANBERRI, ROMAN / LARRAÑAGA, MARTIN / LARRAÑAGA, ANDONI / LARRAÑAGA, INAKI / LARRAÑAGA, BEÑAT
 LARRETA, MARIA JESUS / LARRETA, KONTXI / LARRETA, MIRARI / LAZKANO, ALAZNE / LEIVA, REYES / LEONET, ALBERTO / LEOZ, MARTIN
 LIZASO, AGUSTIN / LIZASO, MARIA / LIZASO, IKER / LIZASO, PILI / LIZASO, KOLDO / LIZEAGA, LUIS / LOIDI, ANE / LOIDI, UNAI / LOIDI, JOXE
 LORENZO, JOSE / LORENZO, PLACERES / MAEZTU, ARAITZ / MAIOZ, MIREN / MAIZ, LOLI / MAIZ, DANIEL / MAIZ, JOSEFA / MAIZ, ANGEL
 MAIZ, IZASKUN / MAIZ, IGOR / MAKAZAGA, MAIDER / MAKUSO, INTZA / MANTEROLA, ARANTXA / MANTEROLA, ROMAN
 MANTEROLA, MARIA JESUS / MANTEROLA, BIXENTA / MANTEROLA, TOMAS / MANTEROLA, INAKI / MANZANOS, CESAR / MANZISIDOR, ARGITXU
 MARTIARTU, ELENA / MARTIJA, JOXE / MARTIJA, KORO / MARTIN, SUSANA / MARTINEZ, MARIA JOSE / MATXAIN, MIKEL / MATXAIN, JUANA
 MATXAIN, ANGEL / MATXAIN, J. MANUEL / MATXAIN, KARMELE / MATXAIN, M. SOKORRO / MATXAIN, PEDRO M. / MATXAIN, IZARO
 MATXAIN, NEREA / MATXAIN, OLATZ / MENDEZ, MARI CARMEN / MENDIKUTE, PELLO / MENDIZABAL, ARANTZA / ZUBIMENDI, MIKEL
 MITXELENA, M. CARMEN / MUGIKA, IKER / MUGIKA, AMAGOIA / MUGURUZA, IKER / MUGURUZA, ARANTXA / MUJICA, INAKI
 MURGA, ANDONI / MUXIKA, KARMELE / ODOL EMAILEEN ELKARTEA / ODRIA, MIREN / ODRIOTZOLA, INAZIO / ODRIOTZOLA, ANDONI
 OLAIZOLA, J. JOSE / OLAIZOLA, MERTXE / OLANO, XABIER / OLANO, J. JOSE / OLASAGASTI, JESUS MARI / OLASAGASTI, PELIX /
 OLASAGASTI, ANDONI / OLIVA, INAKI / ONDARRA, LORENZO / ORBEGOZO, ANTONIO / ORBEGOZO, JUAN / ORBEGOZO, LEIRE
 ORBEGOZO, JABIER / OTAEGI, ARANTXA / OTAEGI, ITZIAR / OTEGI, KORO / OTXAGABIA FAMILIA / PADRONES, MONTSE / PAGOLA, MANOLO
 PAGOLA, MILAGROS / PAGOLA, PATXI / PAGOLA, IMANOL / PEÑA, JOSE / PENALONGA, RITA / PEREZ, ARITZ / PEREZ, ARKAITZ / PEREZ, EDORTA
 PIKABEA, AITOR / PIKABEA, MARIA JESUS / PIKABEA, MIKEL / PIKABEA, MERTXE / PIKABEA, EBARISTO / PORTU, JOSE MARIA / PUERTAS, PATXI
 PULIDO, ALOÑA / REKONDO, JUSTE eta MIREN / REKONDO, IOSU / REKONDO, KERNAN / REKONDO, MIKEL / REKONDO, INAKI
 REKONDO, JAIONE / RETEGI, EIDER / REZOLA, ARANTXA / REZOLA, JOSE MARI / REZOLA, OLATZ / RODRIGUEZ, JON / ROLIN PATRICIA
 ROTETA, INAXIO / ROTETA, JUAN / ROTETA, JULENE / ROTETA, M. JESUS / ROTETA, ESTEBAN / RUIZ, INTZA / SAGARDIA, PATXI / SAGARDIA, ELIAS
 SAGARDIA, JOSE LUIS / SAGARDO EGUNAREN LAGUNAK ELKARTEA / SAGARNA, ANDONI / SALEGI, INAKI / SALSAMENDI, M. SOKORRO
 SALSAMENDI, MIREN GARBINE / SALSAMENDI, JOSE M. / SALSAMENDI, AMAIA / SALSAMENDI, INAKI / SAN SEBASTIAN, M. PILAR
 SAN SEBASTIAN, JOSE LUIS / SANCHEZ, MARTXEL / SANCHO EL SABIO FUNDATZIOA / SANSINENA, JUAN BAUTISTA / SANTOS, INAKI
 SARASOLA, GREGORI / SARASOLA, PATXI / SEGUROLA, ANA / SEGUROLA, BAKARNE / SEGUROLA, KORO / SEGUROLA, NEKANE
 SEGUROLA, KINTIN / SENIDEAK / SOLA, MARIAN / SOLABERRIETA, RAMON / TAPIA, GILLERMO / TELLERIA, AMAIA / TORREGARAI, JOXE
 TORREGARAI, IDOIA / TORREGARAI, J. MARIA / TORRES, PILI / TXAPATEGI, ARANTXA / UDABE, JUAN M. / UDABE, M. ANGELES / UDABE, INAKI
 UDABE, ELIXABETE / UDABE, GARIKOITZ / UDARREGI IKASTOLA / UGARTE, INAKI / UGARTE, ARANTXA / UGARTEMENDIA, ANA / ULI, ENRIKE
 ULI, ANGEL M. / ULI, INAKI / UNANUE, AITZIBER / UNANUE, ARANTXA / UNDIANO, JOSE / URANGA, ARANTZA / URDANGARIN, AGUSTIN
 URDANILLETA, M. KARMEN / URDANILLETA, KARMELE / URKIA, MARIA / URKIA, ARANTXA / URKIA, INAKI / URKIO, JULIAN / URKIO, INIGO
 URKIO, M. JESUS / URLA, JACKELINE / USABIAGA, OIDI / USARRALDE, INAZIO / USURBIL INTSUMITUA! / USURBILGO FUTBOL TALDEA
 USURBILGO PILOTA ELKARTEA / VIDAL, ALFONSO / VIDAL, TXELO / ZABALA, M. ANGELES / ZABALETA, EUSTAKIO / ZALAKAIN, JESUS
 ZALDUA, MARIA ELENA / ZAPIRAIN, ARAN / ZIORTZA ELKARTEA / ZUBELDIA, HAIMAR / ZUBELDIA, LURDES / ZUBELDIA, MAITE / ZUBELDIA, PELLO
 ZUBELDIA, IMANOL / ZUBIAUR, J. RAMON / ZUBIAUR, HARITZ / ZUBIETAKO HERRI BATZARRA / ZUBIETAKO PILOTA ELKARTEA / ZUBIMENDI, JESUS M.
 ZUBIMENDI, M. TERESA / ZUBIMENDI, MILA / ZUBIRIA, M. PILAR / ZUBIRIA, LONTXO / ZUBIRIA, PELLO / ZUBIZARRETA, MILAGROS / ZUBIZARRETA,
 JUANITA / ZUDAIRE, XABIER / ZUGASTI, MIGEL / ZULOAGA, ARANTZA / ZULOAGA, JOSUNE / ZULOAGA, KORO / ZUMARTE / ZUMETA, PATXI
 ZUMETA, MIKEL / ZUMETA, PELLO / ZUMETA, JOXE / ZUMETA, EVA / ZURIARRAIN, M. ARANZAZU / ZURIARRAIN, MAITANE / ZURIARRAIN, ANA

ALKORTA HARATEGIA

Etxeko
produktuez gain,
frutak eta
barazkiak salgai!



Zorionak noaue!

Beheko kalea,4 Telf: 943 36 57 42
Atxegalde

KRIBETZI

lentzeria eta perfume denda



Zorionak Noaue!

Zubiaurrenea, 10 Telf: 943 36 03 37

**Nazio Eraikuntzaren
bidean, euskaigintza
da oinarri!**



**Zorionak
Noaue!**

EH

Euskal Herritarrok

Usurbilgo

Euskal Herritarrok

USURBIL AUTOAK

Zerbitzu ofiziala



Zumartegi Poligonoa
Aitzearra kalea, 1

Telf; 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Z
O
R
I
O
N
A
K

ZENDOIA TABERNA



x Eguneroko menuak
eta afariak
x Bokatak, plater
konbinatuak
x Pintxoak,...

**BERRIZ
ERE
ZABALIK!**

MAHUKA ARROPA DENDA

*Udazkeneko
arropa hemen
aurkituko duzu!*

Orain larunbat
arratsaldetan ere irekita

Zorionak Noaia!



Etxebeste kalea, 3 - Telf; 943 36 11 06

AEK Korrika - Aginaga sagardotegia - Agirrezabal estankoa - Aialde berri sagardotegia- Aitzaga K.E. - Aitzaga taberna - Aizpurua Autobusak - Aizpurua okindegia - Aizpurua Unanue, Jose (igeltseritza) - Almandegi jatetxea - Aldamu oinetako konponketak - Aldatz kiroldegia- Alkartasuna kooperatiba - Alkorta harategia - Algodon Informal- Alual aluminiozko aroztokia - Ana janaridenda - Andatza karrozeria - Andoni pinturak - Andres Bruño e hijos S.L. - Angulas Mayo S.L. - Añorga mertzeria - Antxeta taberna - Araeta sagardotegia - Aranburu landareak - Arantxa akademia - Aranzastoki, Andres (igeltseritza) - Argiaren lagunak - Argilan elektrotresnak- Arrate taberna - Arruti ardoak - Atxega arrain eta mariskoak - Atxega jatetxea - Ayestaran- Azpiroz Harri Lanak - Bar Usurbil - Baratz frutadenda - Barazar ostata - Baymue elektrotresnak - Branch- Benta taberna - Berantz akademia - Berasategi kafeak - Bereziartua zurgindia - Bixen ileapaindegia - Bordatxo edaritegia - Caja postal Eusko Alkartasuna - Euskal Herriarrok - Eiza denda - Ekaitz argazki denda - Elduaen hizkuntz eskola - Elepe ileapaindegia - Elorza Lizaso, Jose Antonio (eskaiola) - Errazkin C.B. (igeltseritza) - Esnaola drogeria - Etxebeste taberna- Euskadiko Kutxa - Eusko Alderdi Jeltzalea - Fernando pinturak - Forum- Galarraga garraioak - Gonsabi S.L. (aroztegia) - Gonzalez ehortzetxea - Gorriti taberna - Ikuska bideodenda- Ikutza aroztokia - Illunbe sagardotegia - Intza ileapaindegia - Iñaki Oliva iturgintza- Ion pinturak - Iosu serigrafia - Ipotx - Irrati pub - Irui sagardotegia - Izagirre Ibargoien, Mikel (elektrozitatea) - Jose Antonio Elorza eskaiola - J.R. Ibargoien zurgintza - Juan Materola e hijos S.A. - Juantxo burdindegia - kalkos kopisteria - Kalezarra karrozeria - Kima masaje lekua- Kinkildegia - Kribetz lentzeria - Labe-Goxo opil-okindegia - Lanbide eskola - Larrañaga plastikak - Lasarte- Oriako Batxiler institutua - Lataillade iturgintza - Laurok liburu denda - Lizardi liburudenda - Lurdes frutak - Mahuka jantxidenda - Maite Borda osasun zerbitzua - Manpel - Manso aroztokia - Mapfre aseguruak - Mari janaridenda - Mary okindegia-gozotokia / Rich - May Kar jatetxea - Mikel Arandegia - Mur errozulazioak - Naturgas - N-I ileapaindegia - Noriega Diez, Eugenio - Oiarde kiroldegia - Olasagasti zurgintza - Optika Usurbil - Orbegozo iturgintza - Orbelde aseguruak - Ostape/Aranguren iturgintza - Patri jatetxea - Pauma haur jantziak - Pello arraindegia- Pinturas Ion- Pikabea agentzia - Portularume iturgintza - Ramon Barcenilla pinturak - Ramon harategia - Sagasti taberna - Saioa ileapaindegia - Sekaño erretegia - Setabu S.L. - Tandy - Teleforo ardoak - Tragoxka jatetxea- Truke jantziak - Txapartegi harategia (Aginaga) - Txapartegi harategia (Kaleberri) - Txaro ileapaindegia - Txikiardi autoen garbiketa - Txikilino - Tximinia altzariak - Txiriboga taberna - Txurru taberna - Udarregi ikastola - Ugarte erretegia - Unipapel - Urdaira sagardotegia - Urtinea elkarte - Usurbil autoak - Usurbil autoeskola - Usurbilgo Herri Batasuna - Usurbilgo udala - Usurbilgo Hartz Klinika - Usurbilgo Udala - Xabier edaritegia - Xabi janaridenda - Zabalea nekazal turismoa - Zendoia-enea taberna - Zubeldia kirolak - Zumeta jatetxea

ELDUAIEN

Hizkuntz Eskola

INGELES, FRANTSESA ETA ALEMANA



Zubiaurrenea, 6-behea
Telf. eta faxa: 943 37 14 02

TRUKE JANTZIAK

Udazkeneko arropa
dagoeneko salgai! Zorionak!

Erdiko kalea, 2

Telf; 943 37 34 81

ARGILAN

Etxetresna elektrikoak
Zorionak Noaua!

Kontzeju zaharra, 13 Telf; 943 36 13



TXAPARTEGI



HARATEGIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 36 48 00

Aginaga
Tel. 36 19 07

AGIRREZABAL ESTANKOA

Zorionak Noaua!

Kale Nagusia, 27 Telf: 943 36 11 10

Xinkildegia

Lentzeria, gizonzkoentzat arropa, haurren
jantziak, etxerako behar dituzunak

Aritzeta, 1 behea 943 36 17 87

Haur jantziak



Zorionak
Noaua!

Tel. 943 36 59 43
Nagusia, 2

SEKAÑA JATETXEA

BEREZITASUNAK:

- TXERRIKUMEA
- TXULETA
- ARRAIA

AGINAGA

Telf; 943 36 27 73

TRUKE

JANTZIAK

Udazkeneko arropa
dagoeneko salgai!

Zorionak!

Erdiko kalea, 2

Telf; 943 37 34 81

RAMON HARATEGIA

Ondo ibili
Noaua egunean!

Bordaberri, 3 Telf; 943 36 29 70

LIZARDI

LIBURUDENDA

- ✕ Maila guztietako testu liburuak
- ✕ CD eta liburuetan aukera zabala
- ✕ Fotokopiak, enkuadernaketak,...

Zorionak!

Telf; 943 36 11 15



Giro eta musika
atsegina!

San Esteban kalea, 1
Telf; 94336 00 80



Giltzak kopiatzen
ditugu

ZAPATAK,
KANPINAK, etab.

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 37 27 95


Noaqua!!

K U L T U R E L K A R T E A



**Eskerrik asko Noaqua!
aldizkaria 100. alera
iristeko laguntza eman
duzuten guztioi!**

Usurbilgo tabernarien elkarteak



- 1 Gorriti. 943 36 27 70
- 2 Txurrit. 943 36 00 80
- 3 Patri. 943 36 27 25
- 4 Zendoia-enea. 943 36 25 60
- 5 Sagasti. 943 36 60 03
- 6 Usurbil. 943 36 43 58
- 7 Antxeta. 943 37 03 44
- 8 Txapeldun. 943 37 04 57
- 9 Oiardo. 943 37 24 98
- 10 Karobi. 943 36 27 43
- 11 Gure Pakea. 943 37 32 28
- 12 Benta. 943 36 61 21
- 13 Bordatxo. 943 37 10 42
- 14 Xabier. 943 36 19 78
- 15 Irrati. 943 36 06 16
- 16 Aitzaga. 943 36 02 17
- 17 Txiriboga. 943 37 00 13

Ondo pasa Noaua Egunean! ZORIONAK!

USURBILGO OFIZIOAK ZURE ESKURA DITUZU

Igeltseritza

URDANTZI

Mugikorrak: 649 43 54 75
649 43 54 76
☎ 943 363370- 361439

JOSE MARI
IKUTZA

Ugarte, 4 Kalezar
Telf eta faxa: 943 37 12 21

Pinturak

FERNANDO
PINTURAK

Enpapelaketak eta pinturak
orokorrean

Telf: 943 36 60 19- 36 34 60

Iturgintza

IÑAKI
LATAILLADE

Iturgintza gas eta berogintza
INSTALAKUNTZAK

Mobila: 609 888021

ERRAZKIN
IGELTSEKITZA OROKORRA

Kale Nagusia, 1
☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25
Santuenea ☎ 629 42 05 65

JOSE AIZPURUA UNANUE
Igeltseritza eta pintura

Teilatu berritzea



Fatsaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE ARANTZISTROKI

Igeltseritza eta pintura
Juan Jose enea, 6
Kalezar
☎ 943 36 05 50- 606 37 21 05

Aroztegiak

BEREZIARTUA

Egurrezko eta
aluminioegurrezko

Aginaga Telf: 943 37 15 71

JOSE RAMON
IBARGOEN

Neurriko altzariak
Errotaberri kalea, 3 Osinalde
☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

Iñaki
Iturgintza

- ☐ Iturgintza orokorrean
- ☐ Berokuntzak
- ☐ Gasa

Mobila: 600 024 825

MIKEL IZAGIRRE

Goiz-Arri etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

Eskaiola

JOSE ANTONIO
ELORZA

Galtzaraopina 2-2B
☎ 943 37 34 70

Gida honetan azaldu
nahi baduzu,
deitu!
943 36 03 21
telefonora

13 untzeko marka egin zuten lau idik 3.800 kiloko uztarriarekin

Ikusmin haundia sortu zuen azaroaren 1ean herriko dema plazan Aitzaga eta Andatzpe elkarrekin antolatuta egin zen idi-probak. 400 pertsona inguru bildu ziren Patxi Illarreta oreretarraren lau idi uztarri berean ikusteko. 50 minututan 3.800 kiloko harriarekin ahalik eta markarik onena jartzea zen beraien lana. Hala ere, jendeak uste baino unte gutxiago egin zituzten, 13 unte, zinta bat, bi metro eta 26 zentimetrotan utzi baitzuten marka.

Ez ohikoa da honelako ididema bat ikustea. Lau idi uztarri berari lotu eta 50 minutuko lana egin behar izan zuten dema plazan. Harria ere ez zen nolanhikoa, 3.800 kilori aurre egin behar izan baitzien lau idiek. Bi haundienak alboetan lotu zituzten, bi txikiak, berriz, erdian. Pisu librean bazen ere, idiok pisatu egin zituzten eta 3152 kiloko pisua eman zuten, 987 kilo haundienak, 595 kilo, berriz, txikiak.



Ikusmina haundia zen. 400 pertsona inguru gerturatu ziren plazara, eta ez zegoen argi zenbat unte egingo zituzten. Hasieran 30-40 unte tartean egingo zituztela uste zuen jendeak, hori nabarmendu zitekeen plazan bertan egin ziren apustuetan. Proba aurrera joan ahala, ordea, kopuru horrek nabarmen egin zuen behera.

Proba hastearekin batera idiek uztarria mugitzeko arazoak zituztela argi ikusi zen. Ez indarririk ez zutelako, untea egin eta gero berriz indarka hasi behar zutenean lau idiak ez zirelako parekatzen baizik. Idi dema izan baino hiru aste lehenago lau idiekin probak egiten aritu zen Patxi Illarreta.



Saiakera honetan ikusitakoaren arabera 25 unte egingo zituztela uste zuen berak, eta marka hobetzeko asmoz beste idi indartsuago bat ekarri zuen Bizkaitik. Aldaketa, ordea, kalterako izan zela aitortu zigun Patxi guztia amaitu zenean. "Azken orduan ekarritako idiak arazoak besterik ez dizkigu eman. Uztarriari tiraka hasterakoan ez zen zuzentzen eta horregatik uste baino marka eskasagoa egin dugu".

Arazoak arazo 13 unte, zinta bat, bi metro eta 26 zentimetrotako marka ezarri zuten Patxi Illarretaren idiek. Ea ba nor etortzen den orain marka hori hobetzera.



Beste 100 baietz! *Noaia!* aldizkariaren kilo askotako apustua

Ehungarren alea atera ez eta 100. ale hori ospatzen ari dituk hauek", esango zuen batek baino gehiagok pasa den azaroaren 4an. Izan ere, Noaia! Kultur Elkarteak egun osoko festa egin zuen egun horretan eta 100. alea oraintxe jaso duzue esku artean. Baina, tira, guk ez genuen ezeren beldurrik, beste 100 baietz! lau haizetara zabaldu ostean nola ez genuen ba 100. alea kale-ratuko?

Haur, gazte eta helduek, Noaia!ko bazkideek nahiz bazkide ez direnek, guztiak izan zuten ondo pasatzeko aukera. Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, hotza eta euria, jendeak ondo erantzun zuen *Noaia!* egun honetan. Goizean haurren txanda izan zen. "Euskal jolasez blai" izenburupean joko ugaritan parte hartu zuten herriko txikienek. Ondoren, berriz, Martzel magoak harrituta utzi zituen frontoian ziren guztiak.

Eguerdian, barrenak berotzeko nahikoa zikero izan zen herri bazkarian. Kafe orduan gainera Irriu abesbatze-koek "Zorionak zuri" abes-teaz gain beste hainbat kantu herrikoi abestu zituzten. Herriko bertsolariak, trikitilariak... ez zen hozteko aukerarik izan. Eta bukatzeko, noski, Tapia eta Leturiarekin erromeria. Patxiren laguntzaz dantza ugari egin zuten frontoira gerturatu zirenek. Beste 100 baietz! Guk baietz uste dugu.

Euskal jolasez blai eta Martxel magoa



Zikiro jana



Tapia eta Leturiarekin erromeria



Joxe Miel Peñakarikano aizkoran Euskal Herriko txapeldun

Beizaman jaio baina Usurbilen bizi den Joxe Miel Peñagarikano aizkolaria lehen aldiz Euskal Herriko aizkolaria txapelketa irabaztea lortu zuen pasa den urriaren 29an. 43 urterekin aizkolaritzaren gailurrera iritsi da aurten. Abuztuan Donostiako Urrezko Kopa irabazi zuen, orain berriz, Euskal Herriko txapela buru gainean jarrita itzuli da Usurbila.


"Sinetsi ezizik nago. Hauxe da aizkolaria batek lor dezakeen garaipenik garrantzitsuena, eta azkenean eskuratu dut". Hauxek izan ziren Euskal Herriko Aizkolaria Txapelketan garaipena eskuratu ondoren txapeldunaren hitzak. Izan ere, ondo kostatako garaipena izan zen urriaren 29koa. Zazpi

final nagusi jokatu da Pañagarikano, eta horietatik behin bosgarren izan zen, hiru aldiz laugarren, eta behin, hirugarren eta bigarren. Baina Oionen, zortzi segundoko aldeaz bada ere, txapela bereganatzea lortu zuen usurbildarrak.

Txapelduna lanerdietan jarri zen probako buru Nazabalekin batera, seigarren enborra botata alegia. Hurrengo oinbi-koak ebakita Nazabal zen aurretik, baina handik aurrera Joxe Miel Peñagarikanok hartu zuen aurrea eta erritmoari tinko eutsiz lehen postua eskuratu zuen 35 minutu eta 27 segunduko marka eginez. Iazko txapelketan garaile izan zen Joxemari Olasagastiren marka bederatzi segundotan ondu zuen Joxemielek Oionen jokatu zen txapelketan.

Bigarren edo hirugarren izango zelakoan

Beretzat ez zen ezustea izan irabaztea, baina bigarren edo hirugarren izango zela pentsatu zuen txapelketa hasi aurretik. *"Azken astean medikuak analisiak egin zizkidan, eta esan zidan gozatzeraz plazaratu behar nuela. Orain, nirekiko nioen bigarren edo hirugarren sailkatuko nintzela, ni ondo egonda*



ere Olasagastiri irabaztea ez baita erraza. Medikuak esan zidan banuela irabazteko aukerarik, batez ere, Urrezko Kopa irabazita, analitikoki orduan baino hobeto nengoe-la eta arriskatzeko".

Garaipena lortu ondoren mal-koak ere isuri zitzaizkion txapela buru gainean ezartzen zioten bitartean. *"Ni ere emozio-natzen naiz- dio Joxemielek- Halere, gehiago hunkitu ninduen anaia ehizatik etorri zenean zoriondu ninduenean. Egia da bestalde, pixkanaka ohitzen ari naizela, baina txapela buru gainean jartzen dizutenean..."*

Txapelketa irabazi ondoren, ordean, ez zaio desafio proposamenik faltako. Olasagastik dagoeneko bota dio bat. Peñagarikanok 40 kanaerdiko ebakiko lituzke, egurrak berak plazaratuta. Olasagastik kanaerdiko bat gehiago ebakiko luke, hori berak plazaratuta. Milioi bana jokatu lukete eta eguberriak baino lehen izango litzateke. Onartuko ote du Peñagarikanok apustu hau?



"Txapelketa egunean goizean goiz jeiki nintzen, eta 08.00etan gosatu nuen: sagar bat, urdai azpiko gozoa, arroza, menbriloa eta gailleta bereziak". Izan ere elikadura asko zaintzen du Joxemielek eta esnekirik ez du probatzen, zizareak eragiten baitizkio.

Autoinkulpazio kanpaina abian da

Joxemi Zumalabe Fundazioaren eta Autodeterminazioaren Biltzarrak taldearen kontrako operazioa "beste bidegabekeria bat" dela salatuz, eta auzi horretan inputatutako Karlos Trenor, Sabino Ormazabal, Mikel Aznar, Iñaki O'Shea, Patxi Azparren, Olatz Altuna, Fernando Olalde eta Pepe Uruñuelarekin bat egin ez- gogoratu lehen bostak espetxean daudela- autoinkulpazio kanpaina abiatu zuten pasa den urriaren 26an Usurbilen.

Herriko frontoian 158 lagun bildu ziren euren autoinkulpazioa jendeaurrean azaltzeko.



Bertan, Euskal Herriko herri mugimendu, elkarte eta sindikatu askotako kideak ageri ziren. Autoinkulpazioa sinatu dutenek auzi berean sartzeko

eskaera egin diote Garzon epaileari eta gauza bera egiteko deia egin diete herritarrei, mila autoinkulpazio lortze bidean.



SEN taldeak "Sen" bere lehen lana aurkeztu zuen pasa den azaroaren 3an Donostiako Koldo Mitxelena Kultur etxean. **Haritz Harreguy** usurbildarra, **Aitor Uriarte** Latzeneko abeslari ohia, **Aiheko Zubimendi** baterijole hernaniarra eta **Mikel Artieda** Tapia eta Leturia Band-eko baxujole ohia dira talde berri honetako partaideak. Aurrerantzean kontzertu dexente emango dituzte: azaroaren 24an Donostiako Bukowski tabernan eta abenduaren 5ean Bilboko Kafe Antzokian besteak beste.



Pasa den azaroaren 6an izan zen urteko azken odol emanaldia. Bertan, 58 pertonek eman zuten odola eta hauetatik bi izan ziren lehen aldiz odola eman zutenak. Azken bi odol emanaldietan jende dexente gerturatu da anbulategira eta Odol Emaileen Elkartekoak gustora daude bi saio hauetan herritarrek eman duten erantzunarekin. Hala ere, oraindik odolik eman ez dutenak, eta utzia dutenak bizitzan hain beharrezkoa den odola ematera animatu nahi dituzte herritarrak.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

GALARRAGA GARRAIOAK

- LUR ONGARRIAK
- ZABOR BILKETA
- ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Elizalde inguruko bideen antolaketa berria

Ez da giro herriko kaxkoan. Paris etxe atzeko parke berria egiteko lanek erabat aldatu dute betiko bizimodua. Zubiaurrenea kalea itxia dago, eta Bordatxo aurreko errofondara joateko edo bertatik Kale Nagusira irtetzeko bidea aurkitzen nahikoa lan izaten du jendeak. Baina etorkizunean nola geldituko dira bertako bideak?

Udalak aurreikusita duena gauzatzen bada erabat aldatuko da herri barruko bideen norabidea. Hasteko, Kale Nagusiko 10. zenbakiko bidegurutzetik San Ignacio auzora norabide bakarria izango da, Aginaga alderakoa hain zuzen ere. San Ignaciotik Gaztanazpiko errofondara dagoen bidea, berriz, zabaldu egingo



da, eta bi norabidetan erabili ahal izango da bide hori. Bestalde, San Ignacio auzoaren aurrealdean errofonda bat egiteko asmoa du udalak.

Kale Nagusitik Gaztanazpiko errofondara dagoen bidea norabide bakarrekola izango da, behetik gorakoa, eta

Donostiarako bidea hartu ahal izateko Borda berri kaletik behera Errekatziki kalera jeitsi beharko dute ibilgailuek. Hau ere norabide bakarrekola izango da. Hori bai, Errekatziki kaleko bidea bi norabidetakoa izango da eta bertatik hartu ahal izango da Kalezarrrera egingo den bide berria.

Aurrerantzean elizaldea inguruko bideak honela geldituko dira:

1- Kale Nagusia

10. zenbakiko bidegurutzetik San Ignacio auzora norabide bakarria izango da, Donostia-Orio norabidea hain zuzen ere.

2- San Ignacio kaletik Gaztanazpiko errofondara.

Bi norabideak bultzatuko dira. Bidearen zabalera sei metrokoa izatera pasako da eta San Ignacio eta Kale Nagusiaren artean errofonda egiteko asmoa dago.

3- Zubiaurrenea kalea.

Kale Nagusitik Puntapax kaleraino (Bordatxo errofondaraino) norabide bakarria. Honela ibilgailu haundiak errofondara bideratuak gelditzen dira. Erdi aldera sartzeko errepide nagusia izango da.

4- Borda berri kalea.

Norabide bakarrekola, Donostiaruntz irtetzeko irtenbideetako bat. Bestea Alperro buru kaletik dago.

5-Kalezarko bidea.

Bi norabide bultzatuko dira: bat Kalezar aldera sartu eta irtetzeko eta bestea Borda berritik datozen ibilgailuak Donostiarantz irtetzeko.

6- Kontseju zarra kalea.

Norabide bakarria. Alperro buru kaletik Kale Nagusiko norabidea bultzatuko litzateke.

7- Frontoi aurreko kaleak.

Oinezkoentzat babestutako eremua izatera pasako litzateke. Leku honetan, bertan bizi diren lagunak eta karga-deskargako zerbitzuak kontuan edukiko dira.

8- San Esteban kalea.

Gaur egun dagoen norabide bakarria mantentzen da, Etxealdiara joateko bidea.

9- Beste bideak.

Ez dira ukitzen.





Andoni Sagarna

□ Noaia! Kultur
Elkarteko
lehendakaria

□ Euskaltzaina

Mirari txiki bat eta erronka haundi bat

100 egin ditugu! eta Baietz beste 100! Usurbil bezalako herri batean hamabostekari bat 100. zenbakira iristea mirari txiki bat da zalantzarik gabe. Jende askori eskertu beharreko miraria: 500dik gora bazkideei hasteko, Noaia! kaleratzeko ahalegina egunero egiten duen lantaldeari, dirulaguntzak ematen dituzten Usurbilgo Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, iragarkiak gure aldizkarian jartzen dituzten dendari eta enpresariei eta herritar guztiei gure aldizkariari egiten dioten harreragatik.

Miraritxo hau ospatuz azaroaren 4ko festa jatorra egin zen. Pozgarria benetan. Orain, festak utzitako ajea alde batera utzi eta erronkari heldu behar diogu: Baietz beste 100! Horixe baietz, horretan ez dut inolako zalantzarik. Lan hori nola egin ikasia dugu eta egingo dugu, baina nik uste lelo horren azpian dagoen erronka askoz gogorragoa dela. Ezin gara konformatu orain egiten ari garena egiten jarraitzearekin. Egunetik egunera hobetu egin behar dugu aldizkaria, edukiak aberastuz, bazkideak ugarituz, aurkezpena hobetuz, etab. Hori bakarrik ez, ez baitugu ahaztu behar Noaia! ez dela aldizkari bat

bakarrik, Kultur Elkartea da eta hor haurtzaroan gaude oraindik. Oinez ere ez dugu oraindik ikasi.

Beharbada oso une interesgarrian gaude aurreranzko urrats bat egiteko. Usurbilek laster Kultur Etxea izango du. Udalak erabakia hartua du eta hortxe ari dira etxe hori zer izango den zehazteko iritziak eskatzen. Esan beharrik ez dago gure elkarteak ahalik eta proposamenik landuena eskaintzeko konpromisoa hartu behar duela.

Etxea txukunduko da, kudeaketa-eredua finkatuko da eta hor orri zuri bat aurkituko dugu usurbildarrok idazten hasteko eta hor dator beste erronka handi bat. Kultur etxe dotore bat jartzeak ez du batere balio egunero-egunero jarduerak ez badaude: erakusketak, hitzaldiak, ikastaroak, lehiaketak, etab., etab.

Udalak ekarpen inportanteak egingo ditu hor, baina ezin gara beti zerutik etorriko den manaren zain egon, herritarroi dagokigu etxe horri bizitasuna ematea, batez ere kultur elkarteetan bilduta gaude-noi.

Zorionak, beraz denoi eta adore, datozkigun erantzukizunei erantzuten asmatzeko.



Bertsoak

Zorionak, Noaua!

Atzo sortu zinen ta
horra, gaur bost urte!
Bitarte hontan zenbat
urrats, zenbat bide...
Helburu eder haiek
gaur ere diraute,
zu zaitugu funtsezko
komunikabide,
Usurbilgo altxorra
bihurturik zaude.

Zure erroak nonnahi
zabaldutuz, nora iritsi zaren
ba ote dakizu?
Lankide ta irakurle
prestuak dauzkazu
eta euskara maila
gorantz doakizu:
prentsa herrikoietan
parerik ez duzu.

Egilea: Arantzazu Aranburu

Lehiaketa



Nola du izena baserri honek?

Asmatzaileen artean Antxeta
tabernan bi pertsonentzat afaria
zozketatuko dugu.

Aginaga aldera joan ginen bai aurreko lehiaketan. Angula garaia hastera doan honetan, Oria ibai ondoko baserria aukeratu genuen zuen ezagutza noraino iristen den jakiteko asmoz. Mapil zaharra zen argazkiko baserri hura, eta asmatzaileak ez zarete gutxi izan. Hala ere, zozke-ta egin ondoren **Xuban Zubiriari** egokitu zaio gure saria, Bordatxo tabernan bi lagunentzat afaria hain zuzen ere.

zure hitza, zure erabakia,
zure sinadura

Bai Euskal Herriari!

Oraindik ez duzula
Udanbiltzari Euskal
Nortasun Agiria
eskatzeko txartela
sinatu?

Oraindik baduzu
aukera! Aitzagan
txartela eskatu eta
siña ezazu.

A genda

AZAROAK 13 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoa-ren aldeko konzentrazioa.** Bortatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan hasita.

AZAROAK 16 osteguna

- **Batasuna batzarraren txostenen aurkezpena** Udarregi zaharrean arratsaldeko 19.30etan

AZAROAK 18 larunbata

- Kakitzat talde antimilitaristak antolatuta **"Kitto soldaduska" jaialdia.** Arratsaldeko 18.00etan kale animazioa, Gaitzerdi, Elektrotuna, Lezot Kaus Band... Gaueko 21.00etan hasita **kontzertua** Betagarri, Su Ta Gar, Doctor Deseo, La Polla Records eta Corazon del Sapo taldeekin. Sarrerak: 1200 pezeta aurrez erosita, 1500 pezeta egunean bertan erosita. Usurbilen Txiriboga tabernan dituzue salgai. Karpa bat jarriko da.

AZAROAK 20 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoa-ren aldeko konzentrazioa.** Bortatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan hasita.

AZAROAK 25 larunbata

- **Harpidetza afaria "Presorik ez, euskal prentsarik gabe".** Aitzaga elkartearen gaueko 21.00etan.

AZAROAK 26 astelehena

- Usurbilgo txistularien Santa Zezili kontzertua herriko frontoian eguerdiko 12.30etan hasita.

OHARRAK

- ✎ **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke.** Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora
- ✎ Noaia! Kultur Elkarteko lokalean **bulegoko mahaiak ditugu soberan.** Hauek nahi dituenak edo hauetakoren bat nahi duenak azaldu dadila Noaia! Kultur Elkarteko egoitzara.
- ✎ Datorren azaroaren 18an **1955eko kintoen afari bikaina** antolatu dugu Atxega jauregian. Izena emateko deitu telefono hauetara: 943 36 13 12 (Beatriz) 943 37 10 70 (Doli) Animatu zaitetz!
- ✎ Zizurkilgo Fraisoro Nekazaritza Eskolak antolatuta, herri txikieta-ko jendeari zuzendutako **"Automobilaren gida baimenaren alderdi teorikoa"** izeneko ikastaroa emango da Autoeskoletan Federazioaren eskutik. Ikastaro hau Zizurkilgo Fraisoro eskolan izango da eta ordutegi ezberdinak daude. Hau, eta nekazari-

tza arloko beste hainbat ikastaroei buruz (fruitugintza, fruitondoan inausketa, barazkigintza ekologikoa, ureztaketa, lorazaintza, jardinen diseinua etab.) informazioa nahi baduzue bi aukera dituzue: Fraisoroko eskolara deitu, 943 69 21 62 (Reme) edo Jon Ander Leñena Usurbilgo Udal Ingeniari Agronomoari deitu 943 37 19 51 (astelehen eta ostegun goizetan).

- ✎ Abenduaren 8an izango da Usurbilgo Odol Emaileen Elkartek antolatzen duen anaitasun eguna. Azaroan izango duzue izena emateko aukera.

**"Presorik ez,
euskal prentsarik
gabe"**

**Harpidetza
afaria Aitzaga
elkartean
gaueko
21.00etan.**

A
Z
A
R
O
A
R
E
N
1
8
a
n

Kontzertua Usurbilen

Gaueko 21.00etan



**SU TA GAR
BETAGARRI
CORAZON DEL SAPO
LA POLLA RECORDS
DOCTOR DESEO**

Noaua! kamisetak salgai



**Noaua! Kultur
Elkartearen egoi-
tzara etorri bes-
terik ez duzue!**

HAURRAK: 1000 pezeta
HELDUAK: 1200 pezeta

Santo Tomas egunerako herriko nekazariei deialdia

Ez dago, ez, hain urrun. Konturatzerako Santo Tomas eguna ere gain-gainean izango dugu. Aurten-goan zerbait egin behar dugu, berezia den zerbait. Noaua! Kultur Elkartea, Tabernarien Elkartea eta Udala, behintzat, berezia den zerbait egiteko gogoz gaude. Eta herriko baserrietan ditugun produktu horiekin azokatxo bat egingo bagenu?

Hala hasi ginen, buruari jira eta buelta eta segituan konturatu ere, azoka hori aurrera

ateratzeko osagai garrantzitsuena herrian zegoela.

Idea, beraz, honako hau da: abenduaren 17an herriko plazan azoka txiki bat antolatzea eta bertan salgai jartzea herriko baserrietan dauden produktuak. Ziur herriko baserrietan babarrunak, intxaurreak, urrak, sagarrak, gaztainak... soberan dituzuela, etxeakoak bertakoak bapo janda ere, plazara ekartzeko moduan. Animatu eta prestatu abenduaren 17rako postu txiki bat zuen baserrietako produktuak

salgai jartzeko. Herritarrek eza-gut ditzatela etxetik hain gertu dituzten kalitatezko produktu horiek.

Gainera, lehiaketa bat izango da azokan parte hartzen duten guztien artean eta diruz sarituko da irabazlea.

Herriko baserritar guztiei luzatzen diegu deialdi hau. Bada-kizue interesik baduzue eta informazio gehiago nahi baduzue pasa gure egoltzatik edo deitu gure telefonora beldurrik gabe. Zuen erantzunaren zain gaituzue.

**BADUZU ZEREGINA
INGURUNEA ZAINTEKO**

BEREIZI, BIRZIKLATZEKO



Zure herria nahiz auzoa zaintzeko eta bai zuretzat bai familikoentzat askoz atseginago bihurtzeko zerbait gehiago egin dezakezu.

Zure ontziak **BEREIZ** ditzakezu birziklatzeko. Gogoratu edukiontzi horira bota beharko dituzula plastikozko ontziak, latak eta brick motako ontziak. Urdinera, berriz, kartoizko ontziak eta papera. Eta, iglu berdera, beirazko botilak eta poteak. Jolastea bezain erraza.



G O G O R A T U



**BAKARRIK PLASTIKOZKO
ONTZIAK, LATAK ETA BRICK
MOTAKO ONTZIAK.**



**BAKARRIK KARTOIZKO ONTZIAK,
PAPERA, EGUNKARIAK ETA
ALDIZKARIAK.**



**BAKARRIK BEIRA-ONTZIAK,
FLASKOAK ETA
POTEAK.**



SAN MARKOS-EKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS

Tel: 943 21 44 78
E - posta: msanmarcos@udal.gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/san-marcos

BEREIZTEA ZURE ESKUETAN DAGO,
BIRZIKLATZEA, GUZIONETAN

